


GURUTZEA ETA KALBARIOA



EL MENSAJERO DEL CORAZÓN DE JESÚS
BILBAO
1936

A.T.V.
2512



GURUTZEA ETA KALBARIOA

M. 6388

R. 2482

GURUTZEA ETA KALBARIOA

ATSEKABETUAI

J. L.'KO VAN TRICHT'TAR BITOR ABEAK

egiña, eta

ISUSI'TAR KOLDOBIKA'K

euzkeralduta



EL MENSAJERO DEL CORAZÓN DE JESÚS
BILBAO

1936

Bear diran baimenakiñ

ENE JAUNGOIKO LAZTANA!

*Zure aurrean idatzi dodaz ingozkiok; atsekabe-
tuai lagunduteko asmoak narabil. Deitu eta auxe
esan zeuntsezun zeuk: «Zatoritze nigana, zator-
tze loretan zabilzenok eta lepo ganean bizitz
aztuna daroazuenok; zatoritze, neuk bizkortuko
zaituet eta».*

*Nekatuenetarikoen bat baño ez ba-da be zure
besoetara eroan dagian eskaña emon egidazu,
neure Jaungoiko laztan orek!*





ATSEKABETUAI

Jugun grave super filios Adam, a die exitus de ventre matris eorum usque in diem sepulturae in matrem omnium (1). «Amaren sabeletik urten ezkerotzik danen amaren sabelean eörtzi artean, Adam'en semiak buztari aztun batek soñkatu dagiz».

Buztari au atsekabea da.

Aurak jayotean negar dagi: auxe da bizitzari dagion lenengoko agura. Il-zorian dagon agureak bere betazal tximurtuetatik negar-malko ixilak, motelak, otzak ixuri dagiz: auxe da bizitzari dagion azken agura. Eta lenegoko eta azkenengo negar-malkoen bitartean, ¡beste zeinbat ixuri dauzan! Luzaro bizi izan dan gizonaren biotzean batu izan diran samintasun eta nekeak, nork zenbatu?

Buztari ori ezin dagike inork bere lepo ganetik jauñti. Gure lenengoko gurasoak jausi ziran ezkeroz, orixe da ludi onetara datoñen gizasemiaren zoria; orixe aita ziñautsale bateren etorki gaizto eta ezauskoñ; orixe ludiaren asieratik gizaldi guztietan azkenengo gizasemea il artean iraungo dauan oben ordaintzarako opalbenaren guri dagokigun zatitxua.

(1) Ecc. XL, 1.

Jakintza, adikaitz au adirazo eziñik, burua astindu eta or dabil bīla ta bīla; baña oldozpenik oldozpen, azkenean gaxaren, atsekabearen sorbururik ez didoro. Ziñismenak bañiz, Jaungoikoak argituta, Idazti-Deunaren lenengoko ingozkian idatzita didoro: *Quia audisti vocem uxoris tuæ et comedisti de ligno...* (1). «Zure emaztearen abotsa entzun eta zugatzetik jan dozulako».

Ziñautsi dozulako min izango zara.

Baña jakintza adirazo nairik dabilen artean eta ziñismenak diragañen artean, gizasemea min da!



Batzuek, zeruari deadar dagion agirizko zoritxañ bategen jota, bekokian daroe, onelan esan dagian, euren biotzak ixuri dauan odol guztia; dakusguzanean, euratzaz

erukiturik, zori txañekoak dirala diñogu.

Beste batzuek zorunaren apaingari utsal guztiakaz jantzirik igaroten dira gure aurretik: euren begiak atsegiñezko dizdirakaz argituta dagertz, euren espantetan iribañeak daroez... mozoñoa ez dautsegu kentzen, zori onekoak dirala uste dogu eta euren zoria geuretzat nai genduke. Baña euren bakañtasun aldie-tan euren jañai eta lagundu al ba-geunskioe, negañ samiñak jario eta, gogoa uraturik, euren biotza, lañitasunez oñazetua, euren eskuakaz estututen zeinbat bider ikusiko gendukezan!

(1) Gen. III, 17.

Beste batzuek, azkenez, bizitzako naigabe andi oñeik ez daroetz, baña min sorgoñ eta motel batek euren izatea zulapetu eta ozkatu dagi: gauza oroen uskeria oartzea.

Irazaki guztien laburitasun eta uritasunak gogaitu egiten dau, nagiak bariz iruntsi. «Nagia, Bossuet'ek ziñoanez, bizitzaren barunbia dagian nagi zail ori!»

Aurkazko gauza bik zurtatu nabe Idazti Deunean. Gizon bi margoztuten dauz. Bata zoritxar guztien aztuntasunaz nekatuta, aberatsa izanikoa gero txiro, bakarrik, bere emazteak eta etxeko guztiak bertan bera itxita; bere seme-alabak ilten ikusi dauz; leyar zati bategaz bere zaurietatik darion zornea autsikitzen diñaridularik, goroztegi baten datza.

Job da.



Beste gizona zorun guztia-kaz beterik dago: abertsa da, alduna; Bakalduna da, jakituna da, gizon guztietatik jakitunena; aintza guztiak eta gogoaren eta sentzumenen pozkarri guztiak atseginduten dabe; an bakaldun-aulkian

bakalduriko arandi argitsuaz inguraturik dago.

Salomon da.

Job'eri bizitzataz galde dagiot eta: «*Taedet animam meam vitæ meæ*» (1), bizitzea gogaikarri yat, erantzuten daust.

Salomon'eri galde dagiot eta gauza bardiña eta itz bardiñakaz onelan darantzust: «*Taedit me vitæ meæ*» (2), nire bizitzak gogait eragin daust.

(1) Job, X, 1.

(2) Eccl., II, 17.

Euroen zoria dan ezbarदिña izanik biok naigabe bardiña izateak nor ez al dau aritzen?

Beraz, bizitzak ez al dauko inorentzat erukirik?

* * *

Ludi onetan atsekabea bearezkoa dan ezkeru, pozkari edo sendagairen bat ez al dauko? Orixe da nire buruari galdetuten dautsodana.

Giza biotzak bere baruan ez dau aurkituko : *Non est auxilium meum in me*, diño Job'ek be.

Egiz, gizona zorabiotu leitike bere oñaze artean, lan etenbako eta zaila artu legike bere lepo ganean, itsu-itsuan ordikeri eta nasaikeri artean lupeztu leitike; onelan bere oñazeak aztutea eta, zelan-bait esateko, min andiangoan bere zaurien miña itotea gertu leitike.

Baña ¡ai! egokera oretatik amesetik bezela urtetan da, eta orduan benetako zoriaren ezten ankeña zofoztagoa dirudi; galtzairu-aizto bat biotz erdian iltzatuta eroyela aztu egin yakon, baña itzartuten danian antxe didoro bañiro be, antxe bertan iltzaturik, antze bertan aragia ebagiten, uratuten, geroago ta barurago sartzen dalarik.

Onez ganera aztutea... Ara, aztu yakulakoa egin dagigun. ¿Azturiko atsekabearen ondoren beste atsekabe bat ez al yatorku? egun bakotxak berea ez al daka? Garbi-garbi eta odei barik zeinbat denporan ete dirau gure ortziak? Eta lañi-aldiak atseginduteko zer idoro legike gizonak bere barunbian? Zer egin legike gixajoak eriotzaren aurka bere biotzeko maiteak daroazenean? Zer egin legike gaixotasunaren aurka, laidoaren aurka, galkuntzaren aurka, bizitz-iguintzaren aurka, ludi onetako gauzen usteltasun eta maltzurkeriaren aurka?

Gizonari bere buruaren aurka eskatu legikion gauza bakarra auxe da: kemena; ez dedila buru makur bertan bera jari; bere biotza eskuetan artu eta gora jasoaz gizona izan dedila: *esto vir!* Oretan dago dana. Eta alan da guzti be, gizonari ori baño eskatu ezaren, zeinbat bider alpeñik!

Biotz zaurituak gizonen artean loñtuko ete gozaki eta osakia?

Gizon batek beste gizonen artean gozakia loñtu legikeanik ez dot ukatzen. Jaunari eskarak, aizkidetasunaren gozotasun eta indararak saritxu bizkoñtu nau, eta bere ontasun, bikaintasun eta almena ondo dazagudaz. Minduta gagozarian aizkide baten biotzian etzunda, berak gure eskua estututen dabela oañtzea, orixe bai gauza on eta atsegingarria!

Baña jail, gizasemea irazaki lander bat baño ez da-ta, gizakumeagandik datoñen laguntza ori, igeskoña, aldakoña izan bear!

Bere umetxuak ilten ikusi ebazanean Erakel'ek, bere aizkideak negar egin eben bere inguruan... Baña pozkariok ez ebazan Erakel'ek onañtu, «bere semetxuak bizi etziralako». Bere inguruko maitasunak beremon al ete legikeozan berak kutun-kutun zituan ilak? Zerk negar eragion, bai, orixek baño? *Quia non sunt!* Aizkidearen naigabea poztuteko alegiñ guztiak alpeñikoak dirala nork ez al dau noz-bait nabaitu? Sendi ganera jausi dan zoritxar batek bere biotza zauritu eta minberatu dagi; bera eta bere etxeko guztiak ondatu egiten dira; bere bizitza guztiko amesa uxatu egiten da... Oñaze izugarriak daroaz gogoan gixajoak. Zure biotza eruki bigunez eta maitasunez beterik, galduriko zoruna berari bañiro emotearen, zeu atseginduten zauzan zorun zatia emoteko nayeon,

beingoan lagun zakio; eta bere aurera eltzen zarianian, bat-batean... zure-miña mututu egiten da, itz egokirik etzatoritzu, zure gogayak erage eta nastuta naspilduten yatzuz... eta: ¡Gixajo ori, ene aizkide gixajo ori!, esanaz, zure biotzean laztandu baño besterik ezin zengike.

Iñori samiñean lagun gakiozala agertuteko, esate oituak agorik ago dabilzala bai dakit; baño otzbereak eta ezertarako ez diran gauzak dirala oñeik ondo baño obeto daki egizko aizkidetasunak. Oñegaitik oñelako esakunik ez darabil. Atsekaberik iñoz euki ez dabenak, oñazerik iñoz jasan ez dabenak, antzesleak euren izkintza bezela, agotik kanpora itz egiten baño ez daki.

Verbosi amici, Job-ek diñoanean, aitaturiko esate oituzaz itz dagi. Aizkidearen oñazea bañenduten dauan aizkiderik gitxitan aurkitu daroa. Zeinbat bider bañuko gatxa nabaitu barik ganeko azala baño ez dakusan!... Eta gure biotza luñinduteko Jaungoikoak oñelako aizkide oañkoñ eta biotz bigundunik damozkunean, zeinbat bider urte batzuen bañuan joaten yakuzan! Edo galdu edo itxi egiten doguz gure aizkideak, atzeñira doanak bere biotzeko ariatzak izten dauzan bezela; edo... il egiten dira, eta gure biotzaren ilobi ganean bizi garialarik, bakartasun andienean gelditzen gara.

Ez, gizakumeakandik ezin itxoin geinke ez osakirik ez atsegiñik!

Jaungoikoa gelditzen yaku!

* * *

Jaungoikoak gizasemeari etenge egiten dautsozan deadañak baño gauza samuñagorik ez dago Idazti

Deunean : baraganatuteko, iduri bigunenak darabiltz. Beiñ, beso legunakaz umetxua berē altzo epelean arturik, titia emoten dagon ama bat dala : *Tamquam si nutrix foveat filios suos* (1). «Bere umeakanako maitasunez beterik, titia emoten dagon ama bat bezela». Gero, bere egopetan berotu eta zainduteko bere txitatxuai karaka larriakaz dei dagien olo bat dala:

Quemadmodum gallina congregat pullos suos (2). «Oloak egapetan txitatxuak batuten dauzan bezela». Urangoan, bere semea irauliko ete dan begira dagon, eta urinetik bai datořela ikustean, ariñeketan bidera urten, besarkada maitekořa emon eta pozaren pozaz negar baten bere bulařean estututen dauan aita bat dala. Seme zarastelaren alegiatzaz nor ez al da oroitzen?

Baña geyenetan darabilen irudia, amarena: *Obviabit illi quasi mater* (3). «Ama aguřgarı bat bezela urtengo dautso bidera».

Quomodo si cui mater blandiatur, ita ego consolabor vos (4). «Amak bere aurtxoa laztanduten dauan bezela bardiñ neuk be atseginduko zaituet».

Atsekabetuak berenganatuteko, maitasunaren zorri guztiak agořtu nai dauzala Jaungoikoak esan leitike. Ařen eta ařen dagitsela lesake. Eta ořaitiño be, beragana gu gitxitan baño joan ez!

Eta zegaitik? Gure oñazeak gozatu eta gure negarık legořtu al ete legikezan zalantzan al gagoz?

¡Ez! Gure Jaun eta Jaungoikoak, berak bakařik, ondasun eta zorun amaigien altxoř guztiak beragan daukozala ondo dakigu. Otoi egoetan gure gogoa

(1) *Thess. II, 7.*

(2) *Matth, XXIII, 17.*

(3) *Eccl. XV, 2.*

(4) *Isa. LXVI, 13.*



beragana jasotean, zeinbat bider esan dautsogun onako auxe : «Ene Jaungoikolaztan ori, ludian diran opagañi, aintzagañi, ospegañi, maitagañi guztiak ezin geyagoan daukozuz zuk zeugan, garbi-garbi, batubatu, betiraun guztian, irazakiak daukezan utsak barik. Zeugan dagoz atsegin eta kordegetze guztiak; zeugan jolasgañi eta zoragañi guztiak; pozkari eta alaitasun guztiak; edertasun eta atsegiñ guztiak; zorun guztiak eta zorunaren osotasun eta betetasu-

na. Gauza gozoari zeugandik yatoñko bere gozotasuna, ederari bere edertasuna, argitsuari bere argitasuna; bizi diran guztiai euren bizitza; sentzumendunai euren sentzumena; zirkin dagien oroi euren indaño; gogoari bere ulermena; osoari bere osotasuna eta onari bere ontasuna». (1)

Auxe dakigu eta auxe ziñistuten dogu. Egizko pozkilea Jaungoikoa bakañik dala dakigu eta ziñisten dogu, zorunaren iturburua bera bakañik dala. Eta oraitiño, bañiro be esan dagigun, beragana barik, gizasemeakana joaten gara, irazakiakana joaten gara, gauza ustel eta utsetara.

Nundik datoñ izkutu au? nundik biur au?

(1) Lessio, Elev. ment. in Deum, c. VII.

Ona emen.

Gure gorputzaren aztuntasunagaitik gure gogo eñukioñak onen soñkatuta dagozan ezkeru, gorputzari dagokiozan pozkariak baño besterik ez dagola uste izaten dogu.

Oldezko eta sentzunezko bizitz baldresa onen kutun yakulako, adimenaren bizitza, gogoaren bizitza, gozartuten eta ausnartuten ozta-ozta dakigu. Beañezkoa litzake, zelanbait esateko, Jaungoikoa gure aragizko begiai agertzea, bere eskuakaz guri ikutzea, gure belañietara berak itz egitea, guk bera ikusi, bera oartu eta berari adiz egon al izateko. Gure arimiak bere guritasuna ia osoro galdu dabelako, gure sentzumen gogokoña onen amostuta dagolako, bere maitasunaren urin leun eta geltsua gure ganetik igarotean, ez gara ezer be ikaratzen. Egiz, Jaungoikoa gizasemien jabea dan ezkeru eta beren sakontasun ezkutuenak be bañendu dagizan ezkeru, gorputzeko sentzunen bidez biotz-ikutu, atsegindu eta alaitu legike; bere zozkoan, bere zainetan, bere azuñetako muinetan zorunaren dardara jaungoikozkoa oañerazitea loñtu legike.

Auxe egin izan dautse Deunai... eta bai-ta geuri be noz-edo-noz. Berari zor dautsoguz, ba, itota eta moskortuta bezela gaukezan eta euren soñkun irasirik ez geure bañuan ez gaugandit ate idoro ezin dagikegun arelako atsegiñ gozatsuzko oldañak. Baña one-lako pozkari oañgañiak meatz emon daroaz Jaungoikoak; gorde egiten dauz eta sari goren eta biguna bezela gorde be. Gogoari eta adimenari, oyez, ziñismen bidez itz dagitse. Gogoari yagokon pozkari zaila damozku, baña ludiko atsegin uskoñatzaz txarto zale-tuak gagozalako, pozkari au gitxitzat daukagu, ezetsi

egiten dogu, otz eta gogaikañia deritxagu. Gure zora-
keria dan andial!

* * *

Gu garian zoroak, bai orixel... Baña gure Jaun eta Jaungoikoa gutzaz erukitu egin zan. Bustin jauskoñaz egiñak gariala ekialako, geure neurikoa egin arteragiño txikitu zan, geure izamena eta yopu tankerea artuteragiño apaldu zan, *exinanivit semetipsum formam servi accipiens*, geuk lez aragizko soiñ agiri eta ikugaia artu eban, eta geure entzukietara barundu zan mintzo oguzia erabili eban eta gure artean geuk daroagun biziarea-eroan eban.

Jesukristo, aragi egiñiko Itza, gizon egiñiko Jaungoikoa izango da, ba, gure oñazeen pozkaria, gure aizkidea, gure zoritxañentzat zabalik dagon biotza, babes kai bat bezela, gure biotzarentzat estalpe deun bat bezela.

Gure gogamen makal eta aldakoñak ez dauz ikusten Jesukristogan izkutuak baño, baña bere Giza-kundeak soñerazten dauzan zalantza guztietatik sendoroen naroana auxe izan da beti: Benetan «samiñezko gizona» *vir dolorum* deitzeragiño zegaitik bere bizitz guztia atsekabezko eun lodi estua egin eban jakin gurea. Gizonari ziñismena eta eginbearak irakasteko, aztuta egoan legearen antxiñako aginduak gogora ekañi eta iragañpen goirengo baten amaitzat ipinteko, bere irakaskintzak eta izkintzak neiko yakozan Jesukristo'ri. Giza izamen eroria goiko leñora jasoteko etzan beañezkoa Jesukristo eroakintza legepean ego-tea. Aita Betikoaren zuzentasunari gure oben guztiak ordaintzeko bere egikun txikeñena be ordaiñ geyegia

zan. Baña ori ta guzti be, ordaiñ ontzia ondareraño edan nai izan eban.

Zegaitik, ba, zegaitik, Idazti Deunak diñoanez, oñazeak *jasan bear* izan dauz?

Galde onentzat erantzun bat baño ez dago: Guri oñazeak eroaten erakusteko eroan dauz berak.

A Irakaslea! a eredu!

Jaungoikozko ikastol onetara zatoze, ba, oñazez beterik zagozenok eta oñazeak eroaten ez dakizuen guztiok. Belen'dik Kalbario'raño gure gain edasten dan irakaste ixila entzun, eta beragaz zuen gogoa ase, zuen gogoan irañi eta zuen biotzean biziro eta garitsu gorde egizue. Zuen indar eta kemena, zuen azkaritasun bizkoña eta zuen adorea, Beragan idoroko dozue.

Agustin Deunak bere Idaztiren baten gizakumeai Kalbario'ko semeak deitzen dautse: *Filii Kalvariæ*. Kalbario'ko Semeak gara, bai. Antxe soñtu ginduzan Kristo'k goi-eskara, eta bai-ta giza-bizitza zear digaron landereri eta oñaze taldeari, naiz-ta sañitan aiñ ankeña izan, bildur barik eta batez be aundu barik begiratzeko kemen eta eroapena be, antxe emongo berenez makal utsa dan gure biotzari.

Eta zer egin dau Irakaslea?

Bere irazakien izaera elkaiztuna ez dau ezer be aldatu. Gure oñazeak ez daukuz kendu, baña bere lepo ganean artu dauz: *Vere... dolores nostros ipse portavit* (1). «Benetan gure samin eta obenak bereganatu eta gure nekeak bere gain artu zituala berak». Bere gurutzea artu eta Kalbario'ra igon da. Añezkero gizonentzat oñazea ikuñ aintzagarria eta kistañen andikitasun ezaugarria da.

(1) Isa, LIII, 4.

Poztu zaitezte, ba, atsekabetuok, bere nekekide izateko deituak izan zarie-ta, *ad societatem passionum ejus* (1). Igon Beragiñ Kalbario'ra, igon beren



tontoñ legaritsuraño; bide oñetatik ez dozue oinkada bat be emongo Gurutziltzatuaren loñatz odolduetan zuen oñak ipiñi barik; zuen begietatik ez da negar-malkotxu bat be luñera jausiko, ez-ta zuen biotzetik odol tantatxu bat be, Jesukristo'k zuekaitik eta zuek baño lenago ixuri zituan odol eta negar malkoak antxe bertan idoroko ez dabenik.

Erpiñ-erpiñeraño igon eta ondo begiratu. Ikusi ori bekoki ori, oñeik esku oñeik, oñeik oñ oñeik, ori sayets idegi ori; negarñak goñituriko begi oñeik, alde batetik besteraño zaurituriko Biotz ori. Zuen bekokia, berea lez, arantzez burestunduta ba-dau; zuen eskuak, bereak lez, zulotuta ba-dauz; zuen biotza, berea lez, uratuta ba-dau, adoretu eta deunkiro arotu zaitezte! Zuen Eñegearen ezaubidea zeuengan irañita daroazue: *Stigmata Domini Jesu in corpore meo porto*. Zuen

(1) Ad Phillip. III, 10.

Jaungoikoaren irudi eta arpegi bereziaz bezela jantzi zarie : *Configuratus morti ejus*.

Jesukristo'k baña oñazea aintzagañi biurtu ezeze maitekoñ eta alaigañi be egin dau : *Superabundo gaudio in omni tribulatione mea*, ziñoan Paulo Deunak.

Ludiak ez dau onelakorik aituten. Samiña maite leitekenik ez dadit; bere ustez zorakeria da ori : eta gizonari zorakeri au Kalbario'an, Gurutzearen oñean, yatoñkola adirazteko, Gurutz-zorakeria deritxo. Izkera au Paulo Deunaren aldian be bai zerabilan ludiak : *Nos autem praedicamus Christum crucifixum... gentibus stultitiam* (1).

Baña ludiak adikaitz au aitu ezañen ardura gitxi; egiñak dagoz. Ori gora bera beti egi izango Gurutzearen oñean gizon enda bat soñtu zala, oñazea maite eta ludi onetako arotz-aldia igaroteko laguntzat oñazea bakañik arñtu dabela; atsegiña baño atsekabea, ospea baño apaltasuna eta ezespina, aberastasuna baño landerñtasuna gurago izan dabela. Eta bai-ta, eundiak joan eundiak etoñi, gizon enda oñek beti iraun izan dabela eta gaur egunean jaungoikozko erneraz kimu edeñ-edeñak damozala be egia.

Elizamaren lenengoko eundiak lez, gure eundi nabañmen onek be bere sabeletik, su eta odol artean eta Jesukristo samindua izan zalako saminduak izateko zaletasunez, bere nekariak urtetan bai dakusaz; gure eundi menge eta biguñi onek Jesukristo ezereztu zalako eta eriotzaraño, gurutz-eriotzaraño atan be, menperatu zalako, ezereztuak eta menperatuak izatea nai daben gizon batzuk bai dakusaz. Gure eundi zoro

(1) I Cor. I, 23.

eta diru-nayak leyatsu iretsitako onek, Jesukristo landeña izan zalako eta iñoren ukarren bidez bizi izan zalako, landertasuna maite dabena eta, Sales'tar Prantzisko'k ziñoanez, landertasuna «jabe atsegingarizat artuta» dauken gizon batzuk bai dakusaz.

Nork ukatuko? Eta guk bear-ba ez dakusgun eta atseginduten ez gauzan baña beste batzuk poztu eta atseginduten dauzan ezti zoragarria ipiñi dabela Jesukristo'k oñazetan ukatu be, zuzenean beintzat, nork ukatu legike, ba? Aldakuntz adikaitz onen zegatia zein dan galde dagistazue? Ona emen: Maitetasuna! Maitagaitik daroaguzan samiñak gozotu eta maitekoñ biurtuten dauzan maitasuna... Gurutziltzatuaren Biotz jaungoikozko eta bere gurutzera auferatzen diran biotz ilkoñ erukañien arteko galde-erantzun ixilen berotasunak sortu daroan maitasuna.

Ez aztu, bestalde, Apostoluaren itz pozkoñok: *Momentaneum et breve tribulationis nostrae, supra modum in sublimitate aeternum gloriae pondus operatur in nobis* (1). Apur bateko loñ ariñak betiko aintza ezin aztatu alakoan kopuratzen dausku.

«Jesukristo berbiztu dabena gu be Jesus'ekin berbiztuko gauzala bai dakigu». *Scientes quoniam qui suscitavit Jesum, et nos cum Jesu suscitabit* (2) «Bere nekekide izan garianez, bere pozkide be ixango gariala bai dakigu»: *Scientes quod, sicut socii passionum estis, sic eritis et consolationis* (3).

Zuek, loñetan zabiltzenok, laster elduko zarie, bear-ba eldu zarie onezkero, bizitzako tontoñera, eta

(1) II Cor. IV, 17.

(2) II Cor. IV, 14.

(3) II Cor. I, 7.

gerokoa itxaropenaren liluraz baño itundasunez geyago dakuskezue. Egin izan dozuen bidean or emen gaztaroko anei eta anei zoragarí, atsegin bakun, ames zuri, toles eta trebe bako asmo eta eginayak, baíro iñoz ez datoíken udabaíri bateren edergaíri aríitsu eta naro guztiak itxi izan dozuez. Ugertuta



dago dana! Igarotean bekokian mun-damotzuen aixea, bere bidean dana ulduten daben uda-goiko aixea da. Beraz aldaperea jetsi bearko... aldaperea dan ariña baíziz!... eta azkenean, eta laster be laster, antxe dago amaya, au da, eriotza.

Baña bizitza dan labuía eta betirauna da luzea dan ezkerro, usterik gitxien dogunean eriotzak arnasea gure eztaían ito eta ilobiratu gagikezan ezkerro, ziñistu egidazue, ludi onetan guri laiñ-izan yakun oñaze

zatitxua betirauneko zogunetan ereiñiko zorunezko azi ugalkoña dala gogoratutea gozogañi-gozogaña da.

Bere Irakaslearen gurutz besapean kistaña datzanean, axe bai lo bigun eta barea!



GURUTZ-BIDEA

LENENGO EGONALDIA (1)

PILATUS'EK JESUKRISTO'RI ERIOTZ EPAYA DAMOTSO.

Beretako batek salduta, eromatar gudariak lokañi sendoakaz esku-lotuta, bere edola edan nai daben eta bera salatzeke beragan obenik idoro eziñik dabilten judutarak epailekurik epaileku naraztuta, azkenean Pilatus'en añera daroe Jesukristo.


Erugetasunaren itxaropen goirena ludion zuzentasunean dago. Beraz, geroago Paulo Deunak bezela, Jesus'ek be Erroma'ko zuzendaritzan itxaron zegikeala dirudi.

Pilatus'ek galde-dagio... eta beragan obenik bat be ez didoro: onela autoñ dagi argi eta garbi eta biritan; beraz, azketsi egingo dau, azkatasuna emon-

(1) Ganerako ingozkiotan oiturazko Gurutz-bidearen inañpena emotea ez dot gogo, ofetarako denpora lafegi bearko litzake-ta. Baña bein irakufi ezkerro, gogamen eta oaf aufenak Gurutz-bideko egonaldietan gogora efes zenkafkez. Onaxe ekafi gura neunkez nik lofetan dabilten guztiak.

Egizko pozkaria, pozkari bakafa, ementxe dago.


go dautso. Ez! Eriak Jesukristo iltea nai dau, eta antxe dago eria epailekuko atauréan gofoto ankeña direntsilarik, oñoaka.



Zer egin ez ekiala, azkenean gogakizun odolkoñ bat otu yakon Pilatus'i : «Zigor eta idisilekaz astindu dagiela aginduko dot, esan eban berekiko, eta eriak odolduta eta zaurituta dakuskenean erukituko da beratzaz». Eta eromataren zigorpean Jesus burutik onetaraño zatituta gelditzen da. ¡Eta eria etzan aretzaz erukitu!

Orduan Pilatus erubako bat gaiztetsiteko setatsu egoalako, jaupariak gañazminduta, auxe esan eutsoen ixilpean : «Adiz gero, gaiztetsiten ez ba-dozu Kaiser'-en aizkidetasuna galduko dozu-ta». Itzok entzutean Erroma'ko ordezkari-aulkia galtzeko bildurez, Pilatus'ek erubakoa bertan bera itxi eta: «Bai, ondo dago,

—diño—; gurutziltzatu egizue; baña nik neure eskuak garbitu egiten dodaz; erubako onen eriotza ez da nire eruz».



Nekaldira eroango eben gudariai luzatuten dausez Jesus'ek bereak. Garaile-irintziak jaurtiten dauz eriak. Azkenean be Kristoa ilten ikusiko dau, eta len-bait-len euren egitekoa bete dagien, urkatzaleai zirika diñardue... A bai poza judutarantzat, batez be donizunantzat; ibili ta ibili be, azkenean euren buruak izkintzariagandik azke ikusiko ebezan.

Jesus'ek dana aituten dau: bere salatzañien guzurak, Piltus'en egotzitasun koldara, lagunabañen iraiñak, aren irintziak... jeta Jesus ixilik! Zortzi egun auferago gizote ber-berorek onelan ospatuten eban: «Gora judutañen Eregeal!»

Bere anaitzat auturiko Apostolu maiteak bilatzen ebezan bere inguruan beren begiak. Guztien buruzan Kepa'k andra baten aurean bildur-dardaraka, iru bider ukatu eban: «Gizon ori ez dodala iñoz ezagutu zin-dagit». *Non novi hominem*. Judas, etoya, goroiki batetik dindilizka bere burua urkatutera joan zan. Besteak, ariskuan egozala igeri ebenian, guztiak iges egin eta urinean ostendutera aldendu ziran. Eta Jesus ixilik! Gizozte aren artean berak osaturiko gaixoak, beragandik ibilteko indara artu eben eren eta elbariak, seme ila biztuta beragandik artu eban euntaria, semea berbiztu eutson Nain'go alarguna urduri bilatuten ebazan... Inor be ez! Bai, antxe egoan euntari bat, baña gurutzea aztuna izan zediñ arduratzen zana... antxe egozan andrak, baña sapaztoak eta asare bizian ojuka inarduenak: «Gurutziltzatu begie eta bere odola gure seme-alabaen ganera jausi bedi!» Eta Jesus ixilik!

Notintza andi aretan ez ete da bat be egongo Kristo'ren alde jagiko danik, ba? Ez-ta biotz bat be beraren on-egiteatzaz oroituko danik?... Ez-ta bere oyartzuna oindiño Jerusalem'go muñoetan bariztuten dan arelako abestia: Onetsia bedi Jauna'ren izenean datořena; onetsiak sořtu zinduazen sabelak eta janaritu zinduazen bularak, dabesten abots bat be?

Ez, inor be ez! Bakařik dago Jesus, salduta, egotzita... bere urkarien ondoan bakařik. Eta Jesus ixilik.

Ene Jaungoiko ori, eta zure samin neuribakoakaz nire samin ezerezak bardintzen zelan ausartuko naz ba?

Guk be ludion nozipeiñ iraiñ ontzia edan bear izaten dogu. Bururatu be ez yakuzan obenakaitik salatuten gaitue. Gure asmo izkutuak gaitzuste arakatu eta euretan guri otu be ez yakuzan eginayak aurkituten dabez. Gure itzak okeñ artu eta okeñ



darabilez, okeñ aituak izan dadizantzat. Gure maitasun garbienak margorik gorotogañienakaz margoztu daroez. On-beañez eta oarkabe dagiguna, azpikeriz eta makurkeriz dagigula diñoe. Inartxidunak orapilotu eta uratu gagie... Aintzat artzen gaitue, maite gaitue ludion bear bezela? Naigabiak baretasunez eroan dagiguzan, eta ixildu gaitezen Kristo ixildu zan bezela. Eskañ txañak, ezezpenak, iraiñak jasan dagiguzan... Zer dira, ba, gure samiñak gure Irakaslearen samiñen ondoan? Eta bera ixilik egoan!

Ixilik egoten ikasi dagigun!

Izatez gure ezkubidien zaindari eta jagole diran epaikariak bai daukaguz geuk be. Edo aita, edo ama, edo senaía, edo nagusia, edo edozein aldun dala; edo bear-ba, ludiko iritxi eta epai guztiak baño bere onespina maiteago eta biotz bañurago daukagun aizkide bat dala. Zuzentasunez epaitu al gaitue beti?

Ai ene! Saítan ez dogu eurekan ez babesik ez laguntzarik idoro. Lagunabañak diadañka ziñoen guztia ziñistu dabe; areik lez ezetsi gaitue; arein begi aúrean gure erúgetasuna ukatu eta ezetsi dabe.

Ixilik egoten ikasi dagigun!

Gizonai on egin dautsegu; bear-ba euren zoriona-
ren oñazetuak izan gara... lak-eta oraiñ min nazan ezkerro nun dagoz areik?... Zeinbat zan begiratu be egin barik ipinten neban uré-goía euren eskuetan... lak-eta oraiñ ondatuta nagon ezkerro nun dagoz areik?

Iges egin dabe... Nork daki; bear-ba etoyak izan yataz, saldu egin nabe!

Nik maite izan neban, eta nire maítasunaz nire gogo osoa emon neban; enintzan bizi maite nebana-
rentzat baño. Gau ta egun beratzaz bakañik oroitzen nintzan; nire lana, nire zintasuna, nire zoruna, nire bizitza guztia beragan neukazan.

Nun dagoz nik maite nebazanak? Nun dago nire biotzeko aizkide a? Bein baten an bide erdian itxi nindun, aúfera eroan nai ez dogun ontzi utza bezela, eta... bakañik gelditu nintzan. Ixilik zagoze! Ixilik egoten ikasi egizue!

* * *

Erúbakoa zan Jesus. Oroen obenak bere sorbalda ganean artu zituanaren, oben orein apaikaria etzan

Pilatus. Beraz, bere epaikari eta zalatzalien aurrean beren bekoki garbia jaso eta beren biotz orbanbakoa erakutsi egikean. Eta guk, salatuak, epaituak, egotziak izan garialako alakatzen garianok, guztiai erakutsi al ete geunskioe bekoki garbi bat eta biotz orbanbako bat? Erubakoak gu, gu! Lepo ganean ezarri dauskuen oben lotsagarria, bear-ba ez gendun egin izango... Baña gure gogape bañeneko izurietan eskutaturik ez ba-legoz, beste zeinbat egiteatzaz ez ete giñake ludiaren aurrean lotsatu bearako!

Bere biotzaren bakañtasunean bere burua dakusan bezela, bere egite, naimen, sumin eta bañenengo oldozkun utsakaz gizonen aurrea joaten nor ausañtuko ete litzake? Orduan bai gure egizko irabaziai dagokienez epaituak izango gintzakezala...

Gure zatañkeriak eskutatzeke gure buru-maitakeriak eukan estalkiaren ertze bat jasotean guban eruen bat ikusi eta epaitu dabelako : eta zer! oju dagigu. Dana ikusi ba-lebe!... Eta oraitiño be, alakatu egiten gara!

Ixildu gaitezen, kristañoak, ixildu!... Eta ludiak gure buru ganera gaitzespenak botaten dauzanean, apaltasunez bekokia makuñtu dagigun, oneri bañiro jagiteko eskubidea garbayagandik bakañik yatoñkotta : *Merito patimur...* Gu saminduak izatea bidezkoa da, bidezkoa gu gaitzetsiak izatea.

Jesus, bera dana dalarik, gaitzespenak eta oñazeak ixilik jasan zituan. Erubakoa zalarik, gure obenak ordaindu nai izan zituan; erudunok gure ordaingarria berenagaz batu eta Berak lez ixilean epaya eroaten asi gaitezen. Berak lez, ixilean eroan dagiguzan aizkidien ezespernak, gure etsayen salatze eta jazañpenak : eskañ-txañak, mukeñtasunak, etoikeriak; gizo-

nak gure biotzari dagioezan txar guztiak batu eta sorbalda ganean artu dagiguzan... Aztuntasun au zer da, ba, Jesus'entzat gertuten diñar'duen gurutzearen ondoan?

BIGAREN EGONALDIA

JESUS'EK GURUTZEA LEPORATUTEN DAU

Gertu dago dana: gurutzea eginda, gudariak euren izkiluakaz... Kalbario'ra!

Gizoztea txaubira neurge bat eraldurik ibili dabil: aurenengo mutikoak ariñeketan, abestuten eta txaloka... gizon bat ilten ikusiko dabe-ta. Atzekaldean jau-pariak, euren guzuzeko eratasun ete benetasunpean gogo bañuan daroen poaz eskutatua gorderik...



Zuek, izen deun baten ostean zuen goñoto odol-gaia gordetan dozuenok, Iragarlien eta Legearen estalkiaz zuen ayeñkerien laidoa ostenduten dozuenok, esan egiguzue, zer egin dautzue Jesukristo'k?

Antxe doa notintza biguria be, Jesukristo'ri txistu dagion eta Bañabas besaĩkatu dagian notintza erosia, zoritxañeko egunetan gizartearen karkabetatik urten daben notintzea. Tira, Bildots eruge-eruge ori, ordua da... zoaz!

Gurutzea solbalda ganean ezari baño len zutunik ipinten dabe gudari batzuek: gorantz jasoten dabe eta bere otseski iluna zeruan margoztuten da. Bat-batean

Jesus'ek, ames batetik bai-litzar, alaitasunez argi-
tutako bere begiak gurutzean jañi, iribañe egin, eta,
bere besoak luzatuaz, laztandu, bere lepo ganean
ipiñi, esku biakaz besařkatu eta an doa... Kalbario'
ra... erioztara...



Gizoztearen oju eta zaratak nastuago diraute, eta
iskanbila ganetik, alkañi egiñiko eta bañe zantzo ba-
sati eta doloñak igituten dauzan iraiñ nabañak, iriak
eta isekak dirantzuz. Lauskituta batera bestera dabilten
notin uiñak geitu egiten dira, eta gaiztetsia uragotik
ikusi eta gogozago iraindu al izateko, gudari esia
luñeratu nairik ukondoka diñañdue.

Eta oañtu egizue ostetasuna : eromatañ agintari-

tzaren aurka jagiteko gertu dagozan judutar o'neik, euren lege eta aberiaren azkatasunatzaz oroitutean asarez dardaratuten diran judutar o'neik, atzeriko buztaria ain gogo txarez daroen eta Kaisari ain goroto andia dautsoen judutar o'neik, Kaisaren aurka jagi zala salatu izan daben eurlako judutar bat iltera daroelako, Kaisaren gudariak goretsi eta, inpernuko zaratea dagielarik, txalotu egiten dabez.

Kristo'ren odola lo'rtuteko eurak, asaldariak, Kaisaren bakaltsein biurtu dira... eurak ain antutsak, ain a'roak, aren onetara'no naraztuten dira... Ai giza gaizkerien laidoak!

Jesus'ek ixilik dirau eta irai'nez sorkatuta dabil, irai' guztiak bere buru ganean lotsagarizko eltze batean korapilotuko bai-lira. Bere nekaldia asi zanean bezela dago, beti baka'rik, aizkide bat be barik, biotz zintzo bat be barik bere alboan!

* * *

Eta zelako ikaskizuna damoskun emen Irakasleak! O'ñazea da gure gurutzea. Eta zer egiten dogu?

Uri'netik zemaitu gagizanean, eldu ba'no askoz lenago, bai dato'rela oartutean, egiko'ra dala oldoztutean; bat-batean, zigo'rkadea gureganatu ba'no len atsegeturik, zotin dagigu... onelan ba'riz o'ñazea a'urratu eta dato'rlen o'ñazeari leto'rkena geitu ba'no ez dautsogu egiten. Zoritxarez, gure samin ornitzalea gure irudimen zoroa izan daroa. Zaurituko ez gauzen txaraka'itik zeinbat bider nega'rik egiten dogun. Nega'rik utsal eta alpe'rikoak! Urkatzalien urgazleak zugatza lu'era botaten i'na'rduenian, edo-ta aren zatiak landu, miiztatu eta bere a'urera eroan ebezanian, gurutzeataz oldoztuten al zan Jesus? Ez: bere oldozpena bere

Aita Betikoaren arduratasunean maitasunez gentzatsu eta jasankor zetzan. Ai! Gerokoa itxi dagigun... Oraingoa be aztunegia ez al da eroateko? Gerokoa Jaungoikoaren eskuetan dago! Atsegiña ala atsekabea gertu dauzkun, Berak bakarrik daki... Jazoko dana jazo, Jaungoikoaren naya bete bearko.

Jaungoikoaren besoetan eta biotz ganean etzun gaitezen, ba, eta Bere biotza gureaz laztandu dagigun, olasko ikarakoia bere amaren bular eta ego bigunpean ostenduten dan bezela. Jesus'ek gurutzea bere aurean ikustean zelan onartu daben gogoratu dagigun. Zelako alaitasunaz eta iribañeaz bere besoak luzatuten dautsozan!

Eta guk? Guk zer egiten dogu? Ene Jaungoiko ori! Ikusi ez dagiguntzat, begiak itxi egiten doguz, ikara-ojuak egiñaz, burua bestaldera biurtzen cogu; gurutzea gure ganera jausten danian, besoak luzatu bai luzatuten dautsoguz, baña gure sorbaldai ikututen dautsenian gugandik urñera jaurtiteko... gurutzeagandik iges egiten dogu, baña... atzean yatorku: guk egiñalak egiñaren, arapatu egiten gauz eta gure ganera jausten da, eta orduan, beste itxaropenik ez dagonian, bere aztuntasunpean luñera jausten gara eta antxe gelditzen gara soñkatuta, zapalduta, indarge, kemenge, aunduta eta ustegetuta bezela.

Gizona izan bear da! Saritan bizitza dan samingaria danañen, eroateko indar egokia damosku Jaungoikoak. Gure bigunkeri eta gozokeri zaletasuna estalduteko ez dagiguzan gure samiñak geyegitu; garian makalak garianaren, samiñaren aurka almen andia daukagu.

Oi! guk be gurutzeari aurez-aure begiratuko bageunskio, ez litzakegu ain bildurgaria irudituko... Gu-

re irudimenaren ibilaldi zoroak eragotziko ba-leukez adimenak, gure bizitza guztia osoro betetako bezela bere beso baltzak osertzetik zear zabaldu eta edatuten ez gendukez ikusiko; emen bean gauza guztiak, oñazea eta samiña be bai, igarokoak dirala ikusiko genduke. Eta batez be, gure begiak argi goragokoak ikusteko edegiko ba-litzakez, ziñismen bizia ba-genduke, orduan bai ludi onetako gauzen estalkia jausiko litzakela gure begien aurrean... Gurutze ori ez dakarte Erroma'ko gudariak, Jaungoikoak damo... ez da nekal-izkilua; aintz eta zorun bidea da. Ori eriotz ori gizonen aierkundera ez da, komoñuak ipiñiriko nekea ez da; Aitaren emoitza da, zerua erosteko ure-goña da.

* * *

Zegaitik? Gurutzea arima ziñestunentzat zerura eta zorunera igoteko zorubia baño ez dalako. Gurutzeak txarkeriz orbandutako gogoa garbituten dabelako, etsayari saldutako arimia bañero erosten dabelako, oben-ordaiñ bidea, gure obenai dagokien ordaiñ bidea dalako. Giza biotzari eruduna dala autoñtzea gogoñ egiten yako; norbere buruaren maitasuna minberatu eta oñazetu egiten da. Baña nai dabena egiñaren be, gogapeak autoñ daragio. Gogapeari ixildu erazoteko egiten doguzan zarata guztiak baño berak gure bañuan bere abotsa gorago jaso dagi, eta gure obenen ikuslea dalako, gau ta egun gogora dakarkuz eta begi aurrean ipinten dauzkuz... Dana ikusi daberen aurren, dana entzun daberen aurren, gogoaren izur eskutuenetan be antxe egoanaren aurrean zelan ukatu? Gure aurka dagigun autoñtza au gogoña da, baña beste batzuei dagitsegun gure obenen autoñen

ondoan zer da, ba? Oi, oldoztuaz bakarik be zelan dardaratuten dan gure biotza! Ez gertaraziteko zelako mozoñoak darabilguzan batzuetan! Azpikeriz eskutatzeke, zelako bideak artzen doguzan! Zelan ostenduten garian!... Eta oraitiño be, oindiño saminkoñoago yakun zerbait bai dagola dirudi : gure obenai dagokien neke bidezkoa ixilean eta jasantasunez eroatea... egin izan dogun kaltea ordaindutea... Jesukristo nekeak eroaten ez dogula iñoz ikusi dirudi!

«Oi ene Jesus, ene Jesus eruge ori! —oju dagi Bossuet'ek—, azkenengo nekea irabazi zendula autoitu bearke ete dozu, ba?». Autoitu bear dau, bai, autoitu bear dau, ene anayok. Egin ez dauzan obenak egotzi dautsoez gizonak; baña gure eruak ipiñi dautsoz Jaungoikoak bere lepo ganean eta zeru luñen aurrean opari iraingekoñ bat egiteko doa. Bera iltzatuteko gurutzea ikusiaz bat-batean auxe esan eban : «Oi ene Aita maite ori, ondo dagokit, ez judutañak egotzi daustiezan obenakaitik, Zeuk leporatu dautzazuzanakaitik baño. Zatoz, ene gurutze ori, zatoz eta laztandu egingo zaitut; nire lepo ganean nik zu eroatea bidezko da, ondo irabazita zeunkadazan-eta». Eta lotsagañizko egurean ordainduteko, ludiko oben guztiak bere ganean artu eta eurokaz bañiro jantzirik, oldozkun oneik buruan eukazala, bere sorbalda ganean ipiñi eta Kalbario'ra nañaztuteko bere indar guztiak batuten dauz». (1).

Auxe egiten dau Irakasleak. Gure obenai dagokien ordaiñ-nekea eroateko mukeñtuko ete gara gu?... Irabazi gendun gurutzearen aurrean atzeraka egingo ete dogu? Ez; ez ba?

(1) Bossuet.— Bariku Gureneko lenengo Itzaldia.

IRUGAÑEN EGONALDIA

GURUTZAPEAN LENENGOZ JAUSTEN DA JESUS

Gurutzearen aztuntasunak leítuta ebilen Jesus. Getsemani'ko baratzean gudariak, etoya buru ebela, lotu eben ezkeroztik eta areago, Aparitik jagi zan ezkeroztik, ez eban janaririk ez-ta ur tantarik be artu.

Gau guztia Anas'en etxeko leotz batean ezer atsaítu barik eta begirik be itxi eziñik igaro izan eban. Goixean epaikari onen lenengoko itaunteketa maltzurá jasan izan eban. Gero Pilatus'en etxera naíazu izan eban. Pilatus'ek Erodes'gana bialdu izan eban, eta onek, zoroa bai-litz, txabux zuri bat ipiñi izan eutson. Ardaoz eta goítoz ordituriko eñi baten iraiñ eta birao artean baíro Pilatus'gana eroan izan eban; Pilatus'ek zigoíkatu egiela agindu izan eban, eta bere aragi eñuge eta garbian odolduriko eñomata-ñen zigoíak zogun sakonak zabaldu izan eutsoezan.

Zigoíaldi eta ilketa ikarakoí aretan saítxu ilgaya il egiten zan; Jesus baña euneka zaurietatik bere odola erionañen, zutunik iraun izan eban. Judutañak saldutako judutañen Eñege au arantzez burestunduteko atsegin ankeña euki izan eban... eta bere bekoki edeñetik eta bere buru guztitik, arpegia, begiak eta samea goñituten eutsoen odol aritxuak urtetan ziran.

Eta orduaintxe, era onetan egoala, bere indañak eta bere bizitza agoñtuta, txabuxaren igurtziagaitik bere zauri zabalak odol baña erioela, orduaintxe artu eban gurutzea bere lepoan eta gogatsu artu be. Baña gogatsu artu ebanañen, laster aundu zan bere gorputz

gaixoa: bere bulara arnas-estuka egoan, bere gorpuzki eta eroak, oñazea baño gogoñago zan gogapeak lendik bizkorñtuak, azkenean makuñtu egin ziran, bere belauñak dardara egin eben eta... luñera jausi, eta gurutzapean zapalduta bezela gelditu zan.

Ilgaya bertan geldituko ete zan, bertan ilgo ete zan bilduñez, gizoztea asko urduritu zan. Baña oindiño bizirik egoala Jesus nabaitu ebenian, baretu ziran lagunabarak eta lengo euren oyu eta iraiñak bariztu ebezan.

Eroma'ko gudariak zañastaka jaso eben eriopetua, eta il bear zan judutañ arenganako eruki barik, beste judutañai bezela goñotoa eutsoen judutañ areri atsedean apuñik be emon barik, gurutzea bañiro sorbalda ganean ipiñi eta auñerantz bultz egin eutsoen.

Eta Jesus'ek zurbil eta odoldurik bere bideari jañai eutson.

* * *

Gurutzea kementsu artutea, Jaungoikoak bere ontzia damoskunean oñazea onañtutea, arima andi zindoen ezaugañia da. Kalbariorantz egiten dan lenengoko oinkadea da. Dan mingañia danañen be, kistañak oinkada ori emon egiten dau.

Lenengo oldañetako goraltzea, izakera on batek beti damon beroa, edo egingo dan egite andiak biztuten dauan zaletasuna, edo azkenez, azteñketa gogoñean ipinten gaituenean, gure egin-beañen gogapea, biotz-beratasun andiak dira eta ia-ia izugañizkoen egile izan arteragiño goratzen gaitue. Lenengo oldañean, ziñopa izateko gertu ez dagozan biotz gitxi dira.

Baña oñazea baño gogoñago dan zeozer bai dago: oñazearen iraupena. Berotasun eta zorabioa igarota,

gizona bere senera etorri eta aurrez-aurre oñazea leikoñ eta setati dakusanean... oi! zelako makaltasuna bere baruan!

Egun bateko samiña eroan bai eroan legike gizonak; bere biotzean indarra eta kemena idoro bai didoro; baña aste osoetan, iletan, urtietan beti oñaze bardiña, beti samin bardiña, beti eriotz-lari bardiña eroatea... bere olde makalari lañegi egiten yako... gixajoa aunduta jausten da eta gurutzearen aztuntasun nekatzalea bere gain nabaituten dau.

Galdetu egiozue or zatituta eta auzpeztuta datzan gogo ori, eta zotinka onelan erantzungo dautsue: «Oi! au geyegi da!... ainbesterako kemenik ez daukat!... zegaitik Jaungoikoak ilten izten nau?... Oi! izan be eriotza oba litzake!

Gizonaren aun-aldi ori, indargetasun ori, nik iñoz txarretsia Jaungoikoak ez bedi nai, eroan dagizen bizkoñtzeko Jesukristo ber-bera jausten da luñera-ta... Egiz Irakasle deunaren olde eta kemena oldar aretan be ez ziran guzurtu, ez-ta aldamenkarik egin be... baña bere gorputzaren indarrek bere gogoaren kemena saldu egin eben. Baña onen lander eta erikariak garianoi gorputza eta gogoa biak aunduten yakuz, eta gure indarrek jausten diran bezela jausten da gure oldea be.

Oi ene Irakasle deun ori, zuk bai gure biotz landera ederto ezagutzen dozula! Ondo dakizu zuk, Jauna, gure oldeak ordu batean ozta-ozta, oldar batean baño ez diraula; gure indarrek iges egiten dabela, digaron aixe-bolada bat bezela, une baten dizdiratu eta gabeko ondarretan ostenduten dan oñaz-targia bezela... Ez, gure makaltasunak ez zaitue ikaratzen eta gure jausketat ez zaitue gugandik alden-

tzen. Zu gutzaz erukitu izan zara, eta gu bezela gurutzapean jausi gura izan dozu!

Baña zu, ene Jesus, zu jagi egin ziñan!... Eta gu? Jagiko ete gara gu? Edo ostez, geyako barik bertan-bera auts ganean etzunda geldituko ete gara?... Zutundu zaite, kistañ ori, artu egizu bañiro gurutzea, Jesukristok berea artu eban bezela, eta zoaz!

* * *

Baña ez gara samiñen auñean bakañik jagi bear, ez gara samiñen auñean bakañik jausten-da. Guretzat eginbearako bidea beste Kalbario-bide bat da, eta zelako jausketak bide oñetan!

Gizonari eginbeara gogoñ, latz, nekegañi yako; bera maite izateko biotzeko kemen eta zintzotasun andia bear da. Eta azalez lakañ, otz-otz eta iguingañi agertuten dalarik, gaiztakeria bizkoñ eta bero-bero dager, eta laztanka gure entzumena bere gozakiak erasi dagitsoz. Bere adimena itzartzen yakonetik bere ilobian datzan arteragiño, auñkazko erakañpen bioen artean bizi da gizona. Bizitzarte onetan zein da bere edestia? Deunak albo batean izten dodaz, oneik gitxi eta Jaungoikoak goi-eskañ bereziakaz zainduak dira-ta.

Gizonaren gogape eta gurarien arteko edestia, bere eginbear eta griñen arteko edestia zein da? Auñezko aixeak jota, aixe-oyalak bein eskeñaldera bein eskumaldera itzuliaz, albo-alboka nekez dabilen itxas-ontziarena ber-bera. Alde batetik bestera doa gizona, eginbeara itxi eta bere griñak bultz dagioen aldera doa, eta bañiro eginbearera itzuli eta bañiro griñai jañai eta onelan igaroten dau bizitzea.

Autatuak, zeruratzen diranak dira; beti euren egin-beña beteaz, usterik gitxien dabenean, Jaungoikoak euren bizitzea azterkatzeko dei dagitsenak. Gaiztokiratzen diranak, galtzen diranak dira; aixe eta uarien aurrez ibiltzen aspertuta, aixe-oyal guztiak jausti deitezela eta gaitz-uariak eroan dagizela izten dabena.

Beste beñ be esan dagigun: jausketa eta berjauketak giza izaerari berez dagokozanak dira: biotzperatzen ez diranak, jausten diranatzaz erukitzen ez diranak, ez dauke Kristo'ren gogo... Danik deunena be ezetsiko leukie. *Nescitis cujus spiritus estis.*

Baña jausi dan arimea zutundutea beñezkoa da, naiz-ta eun edo mile bider jausi; naiz-ta oinkada bako-txean jausi, beste ainbeste bider zutundu egin bea da. Jaungoikoa azketsiteko beti dago gertu, zegaitik zuek azkespena Berari eskatuteko beti gertu egon ez?

Ai! gogo erukañiok, Jaungoikoaren maitasunaren daskatsuek, ez zaiteze iñoz be gogaindu!... Ama batek bere aurrari oñez irakasten diñarduanian, jausten dakusanean ez al da beratzaz erukitzen? Eta zeinbat bider bere txanka makalen ganean albo-alboka eginda gero ez al da azkenean jausten? Eta ume ori mazkal, izter-okeñ edo eren jayo izan ba-litz, beren aurka garaztuko litzake ama? Egizko ama izango litzake? Au onelan dalarik, ez al gauz Jaungoikoak ama batek baño-geyago maite? Eta adimen itsuaz eta naimen erenaz etorri gariala ludi onetara ez al daki berak? Eta Jaungoikoa ez al da gutzaz erukituko?

Txañkeriak sumindu egiten dabela egia da, egia gure uts-egiteak, gure obenak biotz-ikarea damotso-ela... baño ai! arima bat berengana biurtu eta aren dagiola ikustean, zelan bere besoak beingoan luzatuten dautsozan! Jagi zaite, ba, arima gaixo ori, jagi zaitel!

LAUGAREN EGONALDIA

JESUS' EK BERE AMA AURKITUTEN DAU


Ikasleak ikaratuta, Maria'ri bere Semearen zoritxañ izugaria izildu egingo eutsoen; baña laster, alde guztietara eltzen dan gizoztearen surmuñu eta ojuak itzartu dabe eta dan-dana igarñi dau eta bere Semearen bila ariñeketan joan da... Bere Semea! Bere Semea ikusi gura dau! Oñak arindu egiten dautsoz maitasunak, baña atsekabeak biotza ito dagitso... Jerusalem'go bide estuetatik zear bidea laburtuaz, ariñ-ariñ doa, eta... zoko bat igarrotean, bat-batean antxe bere aurean begiztatu dau, margul, odolduta, egur deunaren aztuntasunagaitik luñerantz makurtuta...

Oi ene Ama! ori al da zure Semea?

Atsekabe eta oñaze deadañ andiena urtetan da Amabirgiñearen espanetatik. Ez gizozteak ez gudariak ez dautsoe geldi-erazo, eta negar baten bere Semea besarkatuten dau eta itzik be esateko adore barik laztan maitekoñak damotsoz. *Nec potuit dicere verbum*, diño Bonipazio Deunak. Ez, ezin eban itzik egin, ezin egian negar baño, eta abitzak ez dau aren espanetan ez Jesukristo'renetan itz bat be ipinten. Ama Semeak alkar aituteko itzak bear al dabez, ba?... Neiko esaten eben euren negar-malkoak, euren negar-malko mingots-mingotsak, eta alkar ikutu eta bañendu ziran euren biotzak.

Oi ene Ama, Ama erukioñ ori! or dozu, ba, zure Seme kutun-kutuna, zure sabel garbi-garbien igali deuna! Begiratu egiozu umetan zure altzoan ainbeste bider lo euki eta aiñ maitekoñ laztanduten zendun

Jesus eder-eder ori, Erodes'en bekaitz eta ankeritasu-
netik azkatuteko Ekito'n gorde zendun Jesus ori, ogeta
amar urtetan zure begaldi garbi-garbien menpean bizi
ta gero bere eriarri erakusteko eta bera gaizkatuteko
zugandik aldendu zan Jesus ori... begira zer egin
dauan beragaz orek eri orek!... Oi ene Ama, ez zaite
zure Semeagandik geyago aldendu, iltera doa-ta.



Ama baten begirakuneak indar eta nagusitasun
betugea dauko... orixegaz bakañik gudariak eta giza-
taldea atzeraka bota zituan, eta oldez bidea zabaldu
egioela erazo eutsen; diñoenez, Florenzia'n be ama
baten orelako begirakune eta deadañak leoi bat ikaratu
egin ei eben, gelditu, dardaraka ipiñi eta agin artean
eroyen orduaintxe arapaturiko umetxu bat itxi erazo.

Baña olde zindo au laster naspildu eban griña

txaŕen aduŕak; Jesus Maria'gandik aldendu egin eben, eta oldar batean gelditu izan zan ozteak baŕiro jaŕai eutson bere bideari. Mariak, gizozteaz nastuta, bere Semeari begirik be kendu barik atzean jaŕai eutson.

Jesus auŕera joyan, bere Amagaz topoz-topo egiteak bizkoŕtu eta kemendu egin eban eta. Bere neke-bidean lagun yakon biotz bat beintzat bai egoan, jeta zelako biotza gero!

Oraiñ oñazeak eroateko bakaŕik ez dago!

* * *

Kalbario bidean auŕkitu zendun lenengoko maitasun-ziñaltzea ama baten biotzarena izatea nai izan zendulako, eskeŕak dagitsudaz, Jauna.

Oi! Ama-maitasuna! Zer dira beste maitasun guztiak bere ondoan? Beste batek baño lenago zuri biotz-ikutu eta zu poztutea ondo irabazita eukan, Jauna. Besteak, oi ene Jaungoikoa! ganezka bezela etoŕiko yatzuz, baña onek ez zaitu iñoz be itxiko.

Ona emen Jesus'ek euki eban lenengoko pozkaria. Beraz, Irakaslearen irakaskintzea esangura egokienean arturik, auxe esango dot: Min zara, ene seme ori? zoaz, ba, zure amagana, eta antxe, bere besoetan, laster legoŕtuko dira zure negaŕak... Baña aolku au emon beaŕik bai al daukat? Gure biotza min danean ama baten biotzera makuŕtuten da. Eta ama batek bere semea minduta dakusanean, zelako abots gozo-gozoa darabilen! oi, bere bulaŕean dagon maitasun-sua eta beren laztanak diran samur eta leya-tsuak! A, bere semea, bere aragiko aragia, bere odol-leko odola, bere bizitzako bizitza dala zelan oarŕtuten dauan!... Gogoratu Monika eta Agustin, an, uiñak

euren oiñetara ilten dakartzan itxas-ertzean... Baña, zer, Monika eta Agustin gogoratu beara daukat, ba, nik? Ez al dogu orok ama bana euki? Zelan maite giñuzan aztu al izan dogu? Bere begiak eta bere iribaera ez al doguz ikusi?, bere abotsa eta bere itz zoragarriak ez al doguz entzun?, bere laztanak gure matrailetan eta bere apak gure espanetan ez al doguz oartu?... Gure arimiaren benetako alerpea antxe egoala nok ez daki, ba? Baña, ai! bizitzako bidean gizona gitxi ibili izanaren, ludi onetako gauzai jarraituz, maitasun onetatik ez yako laster gomutea baño gelditzen. Bere amagana joan gura ba-dau, ilobira joan bear, eta... an zer didoro? Itzik ez dagitson eta ezer ulertuten ez dautson auts eskukada bat. Zer baña, ainbeste maite giñuzana oretan gelditu da dana?

Ai! benetan ziñistunak izateko eta ziñismenaren argipean biziteko, noz jauñtiko eta doguz gugandik giza-naimen loyak? Gure ama ilda dagola? Ez, bizi-rik dago, ikusten gaitu, entzuten gaitu, maite gaitu, atzeria eta aberia bananduten dauzan oyalaren ostetik, ludi au eta zerua bananduten dauzan oyalaren ostetik bere samurtasun pozkoñaz poztuten gaitu. Zegaitik beragana sañiago joan ez? Zegaitik berari sañiago itz egin ez? Zegaitik gure biotz zatitua bere aurean ipiñi ez?

Baña ez bedi au bakarik izan gure pozkidea; Jesus doan Kalbario'an beste ama bat emongo yaku... Neke-bidean bere Semearen atzean doalarik, bere negar-malkoak edan eta bere zotiñai eutsiten dautsen Amabirjiñea, Maria, Ziñoparen Eregiña, Oñazetako Amabirjiñea izango da gure Ama. Jesus'engana makuñtuten zan bezala makuñtuko da gugana be... gutzaz be erukituko da, erukiz begiratuko gaitu, eta bai-ta bere laguntzaz atsegindu eta bizkoñtu be.

Kemendu zaite, ba, ene biotz ori; min zarianean ez zagoz bakarrik, Jesus egon ez zan bezela: zeugaz batera negar dagien biotz bi, maite eta poztuten zaituen biotz bi dagoz. Orok itxiko zaitue, ludian bakarrik geldituko zara, bakarrik zure gogayakaz, baña zure ondoan beti biotz bi eukiko dozuz. Zure amaren biotza eta Maria' ren biotza, Jesukristo' ren Ama eta bai-ta zeuria be. Min zara, bai, ene arima ori!, baña zure Irakaslea baño gitxiago, zure espanak ostera pozkideak eta gozakiak ontzi bardiñean edan legiez.

* * *

Amabirjiñ deun-deunak poztuteko daukan almena, atsekabetuai dautsen egizko ama-maitasuna eta besarkatutean darion samurtasuna bañero esan bearrik ete dago? Biotz kistar guztiak ez al dakie, ba, au?, berautzaz oarrikaspen gozo bat ez al daukie? Bera dan Ama gurezat!

«Ama batek ume bateri, semearen irudi bizia dala-ko beste barik, iñun diran laztanak dagiozala ikusi izango zenduen nozbait, diño Bossuet'ek. Olantxe, olantxe ipinten dauz bere eskutxuak, esango dau, olantxe begiratzen dau bere begitxuakaz, olangoxiak dira bere igikuntzak, bere kiñuak, dan-dana». Gauzarik txikeñenak oartzeko be adimen zorotza daukie amak. Eta zer da au, bere semea bera maite izateaz neiko ez yakolarik, aren ideko edo antzekorik aurkitu legien aldetara ama baten biotzat egiten dauan iges bat bezela baño, onelan itz egitea zilegi ba-da? Eta antzekorik, naiz-ta antz gitxi euki, aurkituten dabenean aiñ bañendik biotz-ikaratzen ba-dira, zer esan Maria'tzaz, kistaretan bere Semearen ederitasun osoa-

ren margo iraunkoak Jaungoikoaren atzak euren arimetan aín ederfo eralduak ikusten dauzanean?

Areago. Gu Jaungoiko - Semearen irudi biziak ezeze bere gorpuzkiak be bai gara: Apostoluak diñonez, Bera buru dalarik guk beragaz gorputz bat osotuten dogu... Auxe da Amabirjiñeari gutzaz ainbeste zaletu erazoten dautsona, beste amarik beragaz ezin bardindu al izateragiño. Zoaze, ziñistunok, zoaze Ama bardinge oregana. Ez uste berak onezkero bere Seme maiteagandik aldenduko zaituenik, «aren aragi-ko aragi eta aren azur'etako azur» (1) bezela artuko zaituela baño, eurekaitik eta eurengan odol bat ibili izan dan notin bi bezela baño; eta geyago esan dagian, ludian beste ainbeste Jesukristo ba ziñate bezela begiratuko zaitue. Bere Semeari dautson maitasuna izango da zueri eukiko dautsuenaren neuria, eta oregaitik berari zuen Ama deituteko ez bildur' izan, ama izateari dagokion samurtasuna alik geyen dauko-ta (2).

BOSKAREN EGONALDIA

KIRENAI'TAR SIMON'EK JAUNARI GURUTZEA EROATEN
LAGUNTZEN DAUTSO

Jesukristo, gurutzea lepo ganean eroyela, bere bi-dean aurera joyan, baño Kalbario'raño igoteko indarik ez eukola guztiak igari eben, bai-ta urkariak be.

Onetan egozala, Kirenai'tar bat igaro zan; zer jazoten zan ez ekian eta, zegaitik judutar'ak moltzotu-

(1) Eph., V. 30.

(2) Bossuet, Sermons sur la compassion de la Sainte Vierge.

ten ziran jakin gurarik, Eroslea joyan giza-taldera aureratu zan.

Gudariak abintzak egin eta ilgayari bere gurutzea eroaten lagundu erazo eutsoen. Zeregiñ au adozeñeri ipinteko eskubidea euken Erroma'ko gudariak.

Simon'k Jesus ez eban ezagutzen, aren araudiak ardurarik ez eutson emoten, ez eutson gorotorik ez maitasunik; geyen-geyen be Judea guztia zoratuta



erabilen Nazaret' eko Iragarleatzaz entzutea baño ez eban eukiko. Jesus'i laguntzeko ezin egion bere biotza ezerk igitu; izatez biotz onekoa ba-zan, bear-ba lenen-gotan aretaz erukitu egingo zan; baño azalezko eruki au laster ito eban naigabe batek: uste barik zama aztuna leporatuten dautsoen gizon baten naigabeak.

Baña alan eta guzti be, ezin ezetz esan: nai ta nai ez, burua makuñtu bear, eta... makuñtu egin eban.

Jaso eban, ba, Jesus'ek luñean tatañez eroyen gurutzearen adaña eta atzean jañai eutson. Jesus'ek atsedean apur bat artu eban... Makuñtu erazoten eutson aztuntasuna ez zan asko arindu, baña len oinkada bako-txean eguñ deunak bideko añi eta zulo guztietan egiten ebazan jauzkakaz gorputz deun-deuna dardaratu egiten zan eta bere zauri minbera-minberak bañiztu eta andiagotu egiten yakozan; oraiñ bañiz eguñ aufferantz nañaztu beañik ez dauko.

Simon'en ezazoltasuna ez eban gogotan artu eta egiten eutson onagaitik, bear-ba arek nai ezaren, saritu egin eban... ziñismenaren añgira deituaz.

* * *

Auñkituten ete dogu guk be gure bidean ori Simon ezazol, ezaugue, ez maitasunik ez goñotorik ez dauskun eta oraitiño be gure oñazea arindu eta gozotuten daben ori?

Bai. Guk ezer egin barik uriñetik yatoñkuzan eta, gure samiñak kentzen ez ba-dauskuez be, gure bizitza beintzat atondu eta leunduten daben jazokuntzak, aren antzerako zeozer dirala dirudit.

Gure zori txañen erua iñori bota ezin izatea sañi jazoten da: ludia darabilen gora-berak, euren bideari jañaituz, gugana artez-arte jo barik, gure bizitzari ikutu eta etendu egiten gaitue...

Arnas ilkoñ bat digaro gure buru ganetik... eta bai-ta beste aneiren genetik be, baña gure bulañean sartuten da eta gaixorik, bear-ba ilteko añiskuan, ogean etzanerazoten gauz... ¿Nun dago eruduna?

Luñalde baten sal-erosketak eta lanak uritu egiten dira, eta augaitik ondatu egiten naz... Nun dago emen eruduna?

Ama batek bere semearen ilobi ganean negar dago, senar batek bere emaztienaren ganean, seme batek bere amenaren ganean... baña eriotza gizadi guztiari dagokiona ez da, ba? Beraz gure alakak nori egingo dautsoguz?

Eta gure naigabea giza-naimen azkeagandik sortuten danean be, sañi askotan maimen ori ez da aitu baten dirundigun biuri eta gaiztoa. Egin dauskuen txara oldez egin al dauskue? Dongeak baño geyago argalak ez al dira izan? Uste barik egiñ eben kalteak ez al dauz orain be goibelduten?

Eta jazokun eta notin batzuk nai barik minduten gaituen bezela beste jazokun eta notin batzuek eurak jakin barik eta nai barik atsegindu eta poztuten gaitue.

Oñazearen lenengoko zartadea eroan eziña dirudigula, gauza oargarria da. Zartada ori zelan jasan dagikegun, zelan bizi al geinkezan, zelan ilten ez garian ez dakusgu. Eta aldia joan doa... eta ez gara ilgo, ez.

Eta neke-bide onetan ilabete batzuk igarota, urtebete igarota, urte bi igarota, azterkaldi oretatik zelan garai urten dogun gure buruari itanduten ba-dautsogu, ez dogu beste erantzunik idoroten oreik ustebako jazokunok baño, amaigea dirudian gauari argi izpi bat damotsoen jazokunok, zorunari atea betiko itxi eutsola zirudian arimeari itxaropena ekarfen etori izan diran jazokunok.

Oreik dira gure Kirenai'tarak, eta aintzat ez artzea txarto egiten dogu. Ez zorionak ez zoritxarak ez dabe inoz guk aurretiaz uste genduan neuria betetan; uste

genduan bezin ondo ez txarto ez da ezer be egiten; etorkizuna alik eta pozkañien edo itunen uste dogunean, beti geyegira jotzen dogu.

Baña zer darabilt nik uste bako jazokunak diralata, gertakizun beañezkoak diralata, lege itsuak diralata?... Kistañ bateri dagokion izkerea da, bañau? Oi, ez, bein eta anei bider, ez! Jazokun guztietan, gauza guztietan, txikeri eta andietan, Jaungoikoa, gure Aita Jaungoikoaren eskua ikusi bear da. Bera da gure alboetako gauzak darabiltzana, gure bizitzako gora bera guztiak, oñazez eta pozez, negañez eta iribañez, goibeltasunez eta atsegiñez atonduten dauzana... Gure bidea naiz-ta lakañena izan, Berak egin eta gertu dau gure oiñai dagokien eran, gure indañ eta kemenari dagokien eran... Maite gauz, eta maitasuna maitasunak bakañik darabil.

Zer baña? Bere maitasuna? Bai, bere maitasuna da atsegetu eta atseginduten gauzana. Gure giza-adimen mugadunak ezin legikela ori aitu ondo dakit. Baña Jaungoikoak aituten dau, eta neiko izan bear litzakegu; atsegin goirengo eta amaigea lortuteko gure arimeak bear dabena Berak ikusten dau-ta... Guk be bai dakigula esan ete geinke? Beraz, daukagun eta garian guztia zegaitik ez dogu bere besoetan ipinten? Onen-onena orixe izango litzakela ez da egia ala?

* * *

Simon Kirenai'tañak Kisto'ri bere gurutzea eroaten lagundu eutson. Erroma'ko gudariak ori agindu eutso-enean auxe erantzun egikeala dirudi: Zegaitik? Ni ez naz eruduna ez eriofetua. Oren nekekide niri izan erazoteko ze oben egin dot, ba, nik?

Samiñak azterkatu gagizala itxi eta gurutzearen adar bat leporatuten dauskunian gure Jaun eta Jaungoikoak, guretariko nork esan legike: Ni enaz eruduna ez eriopetua? Oren nekekide niri izan erazoteko zein obena egin dot, ba, nik?

Geu, benetako erudunak geu garialako, betiko eriotzara epaituak geu bakarrik garialako!

Ez, orrelako itzik ezin erabili geinke.

Gure alde, gure obena ordaintzeko, bere burua eskeintzen dautso oparizat Jesus'ek Aita Betikoari... Geuk eroan bear genduke kurutzea osorik, Eta alanda guzti be, zoritxarrik joten gauzanean, beti oju au egiteko gertu: Jaungoikoak onen txarito artu nagian zer egin dautsot, ba, nik?

Zer? Eta Jaungoikoari zer egin dautsozun itanduten be ausartu egiten zara? Zerori begiratzea, zure gogapea arakatutea... zure biziera gogaratutea baño besterik bear dozu ba?... Ori biziera ori eta ori biotz ori oren garbi eta orbange al dagoz?...

Benetako apaltasun eta menpetasunaz gure Erosle deunari jarai dagiogun... Eskeintzen dauskun gurutze adara gora jaso dagigun, eta bere nekekide izatea eta beragaz batean gure obena ordaintzea damoskulako, kemenez eta bai-ta alaitasunez be eroan dagigun.

Jesus erubakoa dala, eta gu, bai gu, kistarok, erudunak gariala ez aztu. *Nos quidem digna factis recipimus.* Zor gendua, eta zor genduan baño gitxiago ordaintzen dogu. Gizonaren obenagaitik sartu izan da samiña ludira. Ez eban Jaungoikoak bere egiñenean ipiñi. Samiña gizonaren oben-neke biurtu da: zuzenagorik ezer be ez. Samiña oben-ordaingarizat eta zerua irabazteko gaitzat aututea gura izan dabelako, Jaungoikoari eskarrik emon dagioguzan.

SEIGAÑEN EGONALDIA

BERONIKEA'GAZ AURKITUTEN DA

Erukiz eta adorez beterik bere Semearen atzean joanaz Maria Deun-deunak emon eban ikasbideak, beste biotz bildurti batzuek be kemendu egin ebazan. Bera lez erukiz beteriko eta berak lez negar egiten eben beste emakume bazuek laster batu yakozan.



Jesus'ek orduan eukan tajua erukaria zan izan be. Gurutzearen aztuntasunak makuñtuta, geroago ta arnas estuago, geroago ta zurbi-lago, nekez eta aldamenka auñera joyan, izerdi tanta lodiak bere odolaz nastufa bere begi eta arpegi eder-edeña estalduten eutsoezalirik.

Judutañak iraindu egiten eben, gudariak, abere-iltokira daroen ardi bat bai-litz, euren aztamakilakaz akulatu; eta Jesus ez-ta ezer mukertu be, ez-ta alakatu be.

Ainbeste oñaze ikusirik, ainbeste iraiñ ikusirik, arpegi deun a odolduta ikusirik, andra bateri erukiak ganezka egin eutson bere biotzean: gudari leñotik zear joan, Jesus'en auñean belaubiko auzpeztu eta

oyal garbi bat eskeñi eutson, eta Jesus'ek aregaz bere arpegia ezeindu egin eban. Oyala itzuli eutsonean bere arpegi odoldua, bere irudia ber-bera bertan mañaztuta itxi ebala diñosku abitzak. Emakume erukior onen izena jakin ez zalako Beronikea deitu eutsoen, au da, benetako irudia, benetako argaskia.

Auxe izan zan Jesus'i egin etusoen bigarengo maitasun-agerkuna, eta artu be eskar onez artu eban; lenengokoa bere Ama deun-deunak emon izan eutson, onegaz gure arimiak gozatzeko poz-iturburu biak zeintzuk diran adirazi nai izan ba-leuskue bezela, au da : sendia eta aizkidetasuna.

* * *

Idazti Deunak aizkidetasunari «bizitzako osakia» deitzen dautso, *Medicamentum vitae*; eta Dabid eta Jonatas'en arteko aizkidetasuna margoztutean eleskerik samur eta bigunena damosku, *Anima Jonathae conglutinata est animae David et dilexit eum Jonathas quasi animam suam* (1) «Jonatas'en arimia Dabid'en arimiaz hat egin zan, eta Jonatas'ek bere bizitza bezela maite eban». Baña, ai! gizonen artean aizkidetasun atsegingari eta deun au gitxitan ikusi daroa. Izen onen azpian zeinbat ogasun-gurari, zeinbat norberekoitasun, zeinbat burukeri eta zalekeri ostenduten dan! Izen au zelan agotan erabili daroen eta zelan zikindu dabien! Zeinbat bider aizkidetasuna saldu daroen!

Jaungoikoak bere ontasun neurigeaz gure bidean aizkide bat, benetako aizkide maitale eta samur,

(1) I Reg. XVIII, 1.

tolesbako eta zintzo bat ipiñi ba-dau, oi! altxor eder ori onetsi eta zuen biotzean gorde egizue! Zuen biotz minberatua zabaldu egiozue zuen aizkideari, eta zuen arimiaren samiña gozatuteko orixe egitea neiko izango da.

Maria'ren maitasunak edo ta Beronikea'ren aizkidetasunak kendu ete eutsoen Jesukristo'ri gurutzea bere lepo ganetik?... Ez; bere sorbalda ganean dirauan, antxe, zogun sakonak egiozalarik, baña, besterik ezean, Irakaslearen biotz mingostuan gozaki tanta batzuk ixuritea lortu eben beintzat.

Berauxe jazoko yatzue zuen aizkideakaz: euren aizkidetasun-agerkayak beti biotz bařena zirikatzen eroango dozuen oñazea kendu ez dautsue osoro kenduko, baña zerbait arindu bai. Zauria osatu, ez; baña samiñaren zořoztasuna moztuten daben usaburkiak bezela izango dira bere itz maitekořak. Ořegaitik gozartu egizue aizkidetasunaren gozotasuna, au egitea Jaungoikoak darakusku-ta. Bizitzako osakia Jaungoikoak aizkidetasunean ipiñi daben ezkerro, maitasun-atsegiñari zabaldu egiozue zuen bulařa.

Baña, ai ene! zer da ingozki onen asieran esan dodana? Gure aizkideak ez al gaitue izten, ez al dira gugandik aldentzen? Ez al daukuz urundeak gure begietatik kentzen eta biotzetik ataraten? Ez al dira gure aizkideak ilten? Ai! izteak zelako samiña! azken agurak zelako goibeltasuna!... Eriotzaren utzuneak zelako atsegetasun eta itun-aldia!

Gure itxaropen guztia eta bizitzako atsegiña eurengan ipiñi genduan eta begira zelan bide erdian izten gaituen eta zelan gutzaz aztuten diran!

Urñiera... betiko... doazala ikusi!

Eta batez be, ilten ikusi, bata bestien atzean ilten,

bata eskumaldean eta bestea eskeñaldean jausten, eta norbera ainbeste ilobi artean bizirik gelditu!

Ez al da berauxe giza-biotz erukañiak daroan oñazerik ankeñenatariko bat? Entzun Dabid'i Jonatas 'en eriotzagaitik negar egiten: Gelboe'ko mendiok, ez inuntzik ez euririk ez bedi inoz geyago zuen ganera jetsi... Azartuak gudaldian iltea zelan izan da baño? Oi Gelboe'ko mendiok, Jonatas zuen tontoretan iltea zelan izan da? Oi Jonatas nire anai lerdan-lerdena eta neskato maitagariena baño maitagariagoa, zugaitik negar dagit! Ama batek bere sema baizen maite zindutan nik!

Zelan jausi dira azartu oreik eta euren guda-izkiluak zelan gelditu dira! (1)

Ai! Gure biotzeko maiteak zelan il izan diran nork ez al daki? Orelako ilaren bategaitik nork ez al daroa bere arimia itun?

Beraz, gure atsekabeak gozatu barik aizkide guztiak joaten ba-yakuz, bakañik geldituko al gara?

Ez! Ilten ez dan aizkide bat gelditzen yaku, gau ta egun geure begira dagon, dei dagiskun eta bere aizkidetasunaz bere maitasunaren altxor guztiak guri emoteko gertu dagon aizkide bat.

Jesukristo.

Izen au guri emotean berak bere buruari emon eutson: *Non jam dicam vos servos, sed amicos,* «Ez zaituet yopu deituko aizkide baño».

Ora or gure arimiaren aizkide ezilkoña. Kalbario 'raño eroango daben gurutze ori leporatu baño len, Apostoluakin batu eta, zelan edo alan esateko, eura-kaz bat egin nairik, bere gorputza janarizat eta bere

(1) II Reg. I.

odola edaritzat emon eutsen. «Nire aragia jan eta nire odola edaten dabena nigan dago eta ni beragan» esan izan eutsen.

Irakurri egizue, irakurri egizue beiñ eta askotan Jesus'ek aizkide deitzen dautsenai eta eroango dituan nekien zegatia diranai egiten dautsen azken agurra. Bere Biotz jaungoikozkoak maitasunez eta samurtasunez ganezka dagiala dirudi!

Aizkide deun orengana zegaitik ez gara joaten, ba?

Atsekabeturik gagozanean zegaitik beratzaz aiztuten gara?

Txadonetako Oteundegietan zegaitik bakarrik izten dogu?

* * *

Kisto'ren aizkidetasuna!

Itz onek adirazoten dabena aituten ez dabelako, zeinbat kista'rek, euren jakiñezagaitik, jaungoikozko aizkidetasun onen pozkari eta alaitasun deunak galitzen dabezan!

Len esan dogunez, aragi eta odolean lokaztu eta ondatuta bezela, ludi onetan agirizko bizitz au baño geyago dagonik ez dabe oldoztuten. Alkar ikusi, alkar itz egin, alkar aitu leitekezan biziztunen artean egon bear dabela aizkidetasunak uste dabe. Jesukristo'ren aldian bizi izan ba-litzaz, bear-ba zalantza barik, tamal barik joango ziran beragana eta maite izango eben.

Jesus'en aizkidetasun jaungoikozkoa Deun batzuekaz be aituten dabe, aren bizitz-edestian Eroslea agertzen yakiela, itz egiten eutsela, itandu eta eran-tzun egiten eutsela irakurri izan dabe-ta. Eta arima

órein zoruna opa dabe... Oi! zelan maite izango leukien Jesukristo, Jesukristo eurei onelan agertuko ba-!itzakie!... Beragaitik zelan egotziko leukiezan lurreko aizkide guztiak! Aizkidetasun bioen artean beste aizkidetasun bat egon leitekenik ez dabe aituten. Eta ori egia ez dala zelan eurei aitua erazo? Zelan eurei adirazi Jesukristo eta gure artean beti sortuten diran artu-emonak... eta otoitzaren bitartez gure biotzetik Jesus'en Biotzera doan eta Beren irakaspen eta igipen, bere indar eta pozkarien bitartez, Jesus'en Biotzetik gure biotzetara datorren alkarénganako erakarpena?

Ai! alkarénganako biotzkada oneik ziñistuten ez dabezanak gitxienez beintzat euren gozotasuna gozartu eta oaríkasi begie. Oi ene arima óreik! minberatuta zagozenean oindi-oiñetara zoaze, Jesukristo datzan Oteundegiaren aurera, eta antxe, belaunbiko, eskuak bular ganean ipiñita, itz eta esate politak bilatzen ibili barik, laukiro, aizkide batek besteari itz dagitson bezelaxe, saminduta zagozela esan egiozue, zuen nekeak, zuen kezkek, zuen gurariak agertu egiozuez, laguntza eta osakia eskatu egiozue... Gero zuen entzumena zuen arima baruan ipiñi egizue igituten dabena Jesukristo da-ta, dei-dagiona eta maite dabena bere eskar-ona, atseginduten dabena aizkidea da-ta, eta onelan darantzutso :

*Nec lingua valet dicere
Nec littera exprimere;
Expertus potest credere
Quid sit Jesum diligere!*

«Ezin legike miñak esan ez idazkoítzat idatzi: Jesus maite izatea zer dan oaríkasi dabena kakarík ziñistu eta ulertu legike».

ZAZPIGARREN EGONALDIA

BIGAREN EZ JAUSTEN DA JESUS

Simon Kirinaitarrek eman izan eutson laguntza eta Amabirjineak eta Beronikeak eman izan eutsoen pozkidea gora bera, geroago ta aulduago joyan Jesus, bere indarrek geroago ta makalago, eta azkenez bariro luera jausi zan. Lagun-oztea Judiziaria eritxon uriatearen urean egoan.

Judutarrek gero ormaz estaldu eben, euren abitzak inoanez, kistarak Jerusalem menperatuko ba-eben, ate aretatik sartu bearko ziran-eta; eta beraz zaipenak artzea egoki zan.

Bigarengo jausketa onek Amabirjinearen eta Beronikearen biotzak minbera-minbera ipini ebazan; euren eztaietan tamal-oju bat ito eben eta Jesukristo jaso eta berari eutsiteko gudarien artera sartuko ziran, ziur. Bana gudariak aiera joatea galerazo eta atzerantz bota ebezan. Urkariak izan ziran euren esku gogorakaz Jesus jaso eta zutunik ipini ebenak.

Une batean, Simon'ek berak bakarrik eutsi eutson gurutzearen aztuntasunari, bana gero bariro eriope-tuaren sorbalda ganera jaurti eban. Eta aiera jaraitu eben guztiak.

Nekaldiak ezin egikean luzaroan iraun. Gorputza egoan makal, odoltsu eta nekearen nekeaz aulduta egon, eta nekaldi ain ankeia ainbeste denporan jasan al izateak, gizozteko bat bana geyago arituta eukazan.

Zelako tayua eukan orduan gure Irakasle jaungoikoarrek nork susmatu ete legike? Gorputzeko zauri guztiak bariro zabaldu eutsozan etenbako astinaldiak;

Bere jantziak odolasetu eta oiñetaraño jausten yakon odola; bekokian iñotsi eta arpegi guztia goñituten eutsen. Ikuskai onen aurrean burdiñ-orizko biotz bat be urtu egingo zan; judutañen biotzak ez eben taupadarik be egin, sukaria bezin gogor egozan; bildur samar izan ba-ziran auxegaitik zan : eriotza ariñegi etoñi eta gugutziltzatuten ikusteak damozan biotz-dardara sendoak galduko ete ebezan.

Bitartean Jesus eñi oñetzaz oldoñtun egoan, eta gerora Jerusalem ondatuta, erautsita, menperatuta ikusten eban, eta beragaitik eta bere semeakaitik eta gurutziltzatuko eban enda gaizto aregaitik negañ egiten eban : Jerusalem, Jerusalem, iragañleak il eta zugana bialduak añikatzen dozuzan ori! Zeinbat bider zure umeak bildu nai nituan, oñoak bere egapean bere txitaldea bezela, eta zuk ez zendun gura izan! Oña, ba, zuzen etxea utsik itxiko yatzue... (1). Egunak etoñiko yatzuz, eta zure etsayak lubaki-esia baranoan irikiko dautsue, eta bañuan artu eta alde guztietatik ertsatuko zaitue, eta zurean zerori ta zure umeak suntsituko zaituez, eta añirik be argañean ez dabe itxiko, zугanako adei-garaya ezagun izan ez dozulako (2).

Jesus ez dago beren nekeari begira, bere eñiaren ondamen eta zigoñaldiari begiratzen dautso : *Popule meus!*

* * *

Bigañengo jausketa onetan gizonentzat irakaspent bi dagozala dirudit. Irazakiakandik yatoñkuzan pozkariak gozoenak izanañen be, azkenean egikoñak ez

(1) Matth. XXIII, 37.

(2) Luc. XIX, 43.

dirala erakusten dausku onegaz Irakasleak. Galerazo ez dauztaz galerazoten, egia da, berak be gozartu nai izan zituan-eta, baña liluratuko ete nabon bildurez gertu egin gura nau; irazakiai gañantzi geyegi emongo ete dautsedan bildur da.

Bere Amaren maitasun osoa bere ondoan oartu ta gero, berari laguntzen Simon etoñi ta gero, Beronikeak, maitasunez beterik, bere arpegi izerditsu eta odoltsua ezeindu ta gero, egiñ-egiñean be orduaintxe bañiro indargetu eta bideko ari ganera jausten da. Esan izan dogu: aizkidetasunak, ama-maitasunak, giza biotzkada guztiak leundu dagikiez zeozer gure samiñak. Igaroten dan samaritar erukidunak bidazti zaurituen zaurietara ixuritako orio eta ardoa dira: baña ortxe dago, ba, txaña: samaritara igaro egitean! Aizkidetasunaren atsegiñak ez dabe betiko irauten, guzti-guztiak igaro egiten dira.

Gugandik aldenduten dan aizkideari zeinbat bider esaten ez ete dautsoguz Emaus'ko lkasleak Gaizkaleari esaniko itzok: *Mane nobiscum, Domine, quoniam advesperascit*. Oi! gelditu zaitez gugaz, gaua ganera yatorku-ta! baña... itxi egiten gaitu! Eta oñi be gure biotzari gaua etoñi egiten yako ganera, eta gure irudimenak zomoñoz betetan daben bakañtasun ikaragañi baten ondareraño jausten gara. Eta an gure oñazea idoroten dogu, biztu, anditu eta itzalgañizko margo eta neuñiak artzen dauzalarik... Berartu izan gendun bizkoñtasun apuñá galdu egiten dogu eta bañiro geure ganera jausten gara.

Gure aizkidien laguntzea apur bat baño ez da, eta apur ori be aldi labuñean!

Makalkeriz bañiro jausi eta oben egiten dogunera-ko gertu egon gaitezantzat irakasbide bat emon gura

euskun Jesukristo'k gurutze azpian bañiro jausiaz. Atsekabeak joten gaituanean, erabaki sendoak artu eta garai urtetan dogu... Baña garaikuntzeak luzaroan ez dirau; bat-batean gure kemena agoñtu egiten yaku, eta bañiro zamapean jausten gara. Bañiro zutundu eta bañiro bizkoñtzen gara. Eta bañiro garai urtetan dogu; baña bañiro gure indaña agoñtu eta bañiro jausten gara luze-luze gurutzearen aztuntasunak soñkatuta... Eta nekea eta lañitasuna sartzen yaku, eta etenge menperatzen gaituan arerioaren aurka etenge garaikuntzak loñtuten iñañduteak gogait eragiten dauku...

Beti asi eta asi egon bear ko ete da, ba? Bai, arima gaixo ori, beti asi eta asi, etenge egon bear da. Egunoro asi bear da neke-bidea eta oñetarako zutundu eta ibili. Baña Jesukristo ez al dago bide onetan irakasteko? Eta batez be ez al dago or Bera indaña emoteko?

* * *

Eta gure makaltasunetik egunoro jagi erazoten dauzkuna ez bedi oñazea bakañik izan, onbidea eta beañkuna baño batez be.

Gizona lenengoz aundu eta txañkerien lilurai jañai baño len, bere gogapeak buñukea erabili dau, gero zalantzan asi da, apurka-apurka bigunduez joan da, eta azkenez jausi egin da.

Baña atsegin gabendua ozta-ozta gozañtuaz batera, len griña txañak ilunduriko adimenak bañiro añgituten dau arimea... Eta gizona lotsatuta, zorabiotuta, bere adimen añgituaz txañ-egiñaren itxuskeri eta zatarkeri osoa dakus, arpegia goñitu egiten yako eta, gogor egin

ez dabelako, loitu eta zapuztu izan dalako, bere bu-ruari asare biziak dagitsoz... Eta loitu be ain gauza txi-keagaitik! Orduan damutu eta jagi egiten da. Lenengo jausketaren alderdi biok banandu eziñak dira, lasaikeriari damuak orpoz-orpo dañaikio-ta. Naiz-ta a ames-koñena izan, beste au atsegekoña dalako; guztia igaro ta gero, arima gaixoak gaiztakeria maite baño gaizta-keriak arimea tatarez daroala obeto lesake.

Baño bigarenez eta irugarenez jaustean aurkazo biotzkada oneik sortuten dira. Alan be, asiriko oitu-reagaitik txareriaganako gozamina sustraitu eta sen-dotu egiten daben ezkerro, oitura beraugaitik damu-eztena moztuez eta leunduez doa. Eta jausi eta jausi, eta, Idaztiaren esatez, «gaizkeria ura lez edanen eda-naz», gaizkeriaganako gozamina arimean dagoni sa-kan dagolako eta damu-eztena dagon motz dagolako, noz-bait obenak bakañik igitu eta biotz-ikutzen dautso, eta damua ez-ta nabaitu be, nabaitu ba-dagi be bañiz, noizik noizera baño ez... itz batek, ustebako jazokun batek, zoritxar batek gogor astindu eta bere eginbeña gogoratuten dautson orduetan.

Gaizkeriatzaz zaletuten dan arimearen zori txara, berari lotuta, zoro-zoro bere besoetan etzunda, luñean lasaikeri loikatzen ondartuta gelditzen da-ta! Eta ego-era oretatik urtetako bide bakaña, bein eta eun bider jagiteko kemena dala, nork ez dakus?... Oitura txar-ña sustraitu ez dediñ, jausten garian baxotxean len baño bizkoñago eta kementsuago jagitea beañezkoa litzakegu. Jagi, ba, ene arima ori, jagi egin bear da : gora eta ariñ! beti gora!

ZORTZIGAREN EGONALDIA

JERUSALEN'GO ALABAK AURKITZEN DAUZ JESUS'EK

Zutundu eta oñaze bariak biotzean eroyezala uriko aresietatik at urten zan Jesus. Atetik eun oinkadara, Kalbario'rako aldatza erpinduten asten dan lekuan, samindurik bere bila etortzan andra batzuk ikusi ebazan; ziur-ziur bere ikasle ziranak eta bear-ba berak onetsi eta laztanduriko umien amak; bear-ba eortzera eroakioen semea bizirik irauli eutson arako Nain'go alarguna.

Ezagutu zituan Berak, euren negar'ak ikusi zituan, eta maitasun-begirune bategaz eskar'ak emon eutsezan; gero bere biotza geyen ikutzen ebana eurei agerturik onelanesaneutsen: «Nigaitik ne-



gar'ik ez egin; zeurokaitik eta zuen semeakaitik, bai, negar' egizue, Jerusalem'go alabak. Izan be egunak bai datozke, ta orduan esango da: Zori onekoak ago'ak eta aur'ik so'rtu ez daben sabelak, eta eradoski ez daben bular'ak! Orduan asiko dira mendiei esaten:

zatozkigue ganera : ta muñoiei, estal gaitzue. Egur ezean au jazo ezkeru, ba, igarëan zer jazoko da?» (1).

Itzok aurregunean egiñiko iragarrien oyartzun antzo ziran :

«Jerusalen gudoztez esituta ikusi orduko, aren porokaldia aurki dagola jakin egizue. Orduan Judai'n diranak mendietara igesi bijoaz; ta uri barukoak landara urten bediz; ta baztaldekoak barura ez betoz. Apenegunak bai dira areik idatzitako guztiak bete deitezan. Egun areitan aur'dun eta inudien zori txara! Lari andia lur osoan ta armin gofia eri onetan izango da-ta. Batzuek ezpata-sorbatzak ilgo ditu; besteak atzeri guztietara eroanak izango dira jopu; ta atzeritarak Jerusalen ostikatuko dabe, atzeri aldia bete arte» (2).

Jesus'en itzak entzutean gizoztea ixil-ixilik geldituzan. Beren abotsa entzun eben judutarak, baina zori txarak iragarren eutsozan Iragarleari gorotoa eutsoenez, bere itzai iskirioz eta isekaz erantzun eutsen.

Geroago, izentaturiko egunak betetan diranean, Jesus izeneko beste batek, Anani'ren semea, Kutxatoki jayetako jaikunen ixiltasunean, onelan oju egingo dau: «Ai uria! ai txadona! Sorraldeko abots ori, Saraldeko abots ori, lurreko lau aixien abots ori, ai Jerusalem!» Zigoñtau egingo dabe, baina zigoñkada bakotxean geroago ta abots negarriagoaz: «Ai Jerusalem!» esango dau.

Lau urte jaraituetan iraun eban jai! au esaten, enparantzetan, txaidietan, aresietan, eta geroago ta abots itunagoaz. Bein baten, ai Jerusalem! esan

(1) Luc. XXIII, 28-32.

(2) Luc. XXI, 20-24.

ostean, ai ene! esan eban. Erroma'ko katapulta bategaz jauñtiriko ari batek zauritu egin eban, eta bat-batean ilda jausi zan.

Egun batzuk geroago, Jerusalem eta bere txadona sute ikaragarizko batean austuta gelditu ziran.

* * *

Oldozmena norberen nekietatik kendu eta bestienetan ipintean, gure zori txarren mingostasuna gozatu-teko bide egoki-egoki bat erakusten dausku Irakasleak. Berak lez, aldendu dagiguzan gure begiak gure oñazetatik, eta bestienak oartu dagiguzan.

Gizonik zori txarrekoenak geu gariala gogoratzen gagozan oituak! Gure zori txarak arauz-atekoak dirala, onenbeste oñaze geuk baño ez daroaguzala eres ziñistuten dogu, eta orixegaitik dirudigu gure bizitza onen jasan-eziña.

Ai! ez; garian zori txarrekoak izanaren be, gizadian oyezak ez gara, egiz. Min izatea guztion etorkia da, guztiok gara min. Egiz, Jaungoikoak ez dautsez guztiai oñazeak neuñi bardiñaz bananduten, baña zatiren bat guzti-guztiai. Ez dauke guztiak zauria biotzeko leku batean, baña guztiak dagoz zaurituta eta odola dariola.

Ludiari ondo begiratzen ez dautsogulako sortuten da gure amesa. Ama batek bere semea galduten dau, eta berena ondiño gordetia Jaungoikoak damotson beste ama bateri begiratzen dautso... Eta ez yako gogoratzen arako lau bost eukazana eta bata bestien atzean guztiak adin batean eta gaixotasun bardiñaz ilten ikusi dauzana. Diru estutasun batean sendi bat ondatu egiten da... eta ondiño euren ondasunak gor-

detan dabezanai eta beraz andikeri eta kirkilerietan iraun al dabena begiratzen dautse, berak bañiz diru-banatutea gitxitu eta erdizka bizi bear. Eta landeñak, sañi askotan agora eroateko ogi zatitxu bat be ez dauken erukañiak ez yatorkoz gogora.

Landeña! : oña orñ arima minberatuentzat osakirik indañtsuena.

Landeñatzaz oldoztu, euren zoritxañ eta beañizana-tzaz arduratu eta lagundu, euri itz egin eta entzun eta aolkuak emon eta jabon eta eurakaz aizkidetu eta eurakaitik norberen burua opaldu, euren otsein egiten garialarik, Jesukristo egin zan bezela; itz batean, eurak maite izan, laster be laster maitagañi biurtzen yakuz-eta!

Landeñarekiko ardureak, landeñarekiko maitasunak, eta batez be landeñai ikerñaldiak egiteak zelan gozatu legiken oñaze izkutu eta bañuko bat aituten gaitz egingo yake norbaitzuei. Ondo dago; baña oñei oañpenak egin dagiezala añen daskatset. Zoaze, arei ikerñalditxu bat egiezue, aizkide batek bere aizkidea ikerñuten dabena bezela, eta orduan zuen adimenak ulertu ezin dabena zuen biotzak nabaituko dau.

Paul'tañ Bizente Deunaren bazkide diran gizon eta emakumeai, era batean edo bestean beañtsuei laguntzen diñañduen kistañ guzti oñei dei dagiet. Edestu begiguez, al ba-dabe, oañikasi dabezan biotz-ikara gozo-gozo eta sendo-sendoak, landeñak ikerñuteko joan izan diran sabai-bizitoki erukior eta txabola zazkeletan sañtu izan yaken goi-indañ altsu eta pozkoña.

Ukaña... gauza ona da... baña urññera jauñtiten danean zelan ezereztuten dan! Geyago urñratu zaiteze, landeñeriari eta zoritxañari urñgotik begiratu egiezue eta gogo gaixo oñeik zuek baño askotaz zori txañago-

koak izanik euren nekeak jasantasunez eta kemenez eta batsuetan bai-ta alaitasunez be daroezala ikus-teak, samiñak zelan eroan bear diran erakutsiko dautsue.

* * *

Ludi onetako landerén artean ez dira landerák gorpützeko miñak daukezanak bakañik, gose eta egañi diranak bakañik, bilosik dagozanak bakañik. Landereri oreik itun-itunak dira egiz, eta zuen erukia eskatuten dabe. Bossuet'ek esate eder au dakañ: «Bardintasuna egon dediñ, *ut fiat aequalitas*, landerén bizitzea aberatsen ardurapean ipiñi dau Jaungoikoak, oneik bear ez dabenetik arei zer emon bear dautsen izentatuaz, diño Paulo Apostoluak». Alan be, beste landereri eta zoritxañ negañoaño bat dago, au da: landereri eta zoritxañ oikoña, arimearen landereria. Zeinbat gizonek euren gaizkapenerako bear dabezan gauzarik ez dauken, zeinbateg euren ziñismena, euren bearkunak, euren etoñkizuna ez dakien edo eurotzaz aitzu izan diran!... Egiaren eta añañaren eta onu onen gose eta egañi diran zeinbat gizon dagozan!...

Emoitz goirenak, gogozkoak eta oikoñak ugari ba-daukazuez, ba, areitaz arduratu zaitez; zuen altxoñak arein artean banandu egizuez, ukañ ori, ukañ ederén ori egiezue. Oi! zeinbat bider altxoñ oreik bananduteko zekenak izaten garian, naiz-ta gure aizkideai banatzea izan!... Edo naigabetu edo atsegetu edo kezkatuko ete doguzan bilduñez, euren ondapenera daroazen aldaperatik joaten emaro izten dautsegu. Onu oañkoñ eta maitekoñ batek, itz toles-

bako eta samur batek ariskutik atarako leukez, eta...
ixildu egiten gara!

Gure anayarekiko bialguntza bat dago, gure Jaun eta Jaungoikoak agindua, eta orixe da... Bera betetan ez gaitezen aundu.

Landereri gizetiarik bateri be ez dagiogun ardura barik begiratu... Gure anayen eroakintza guztiak biotza ikutu begigue... Alakaren bat entzuten dogun edozein lekutara joan gaitezen, gugandik urten eta bestien barura sartzen garialarik... Gu min gara, bai baña beste batzuk be; augaitik besteak poztu dagiguzan eta, ziñistu egidazue, bat-batera gure oñazea gozatu egingo da.

«Laguntza andia da, iñoan batek, nekekide bat eukitea». Lagun maite oreik bilatu dagiguzan, ba, eta eurakaz batean bidea darakuskun Jesukristo'ri dafayogun.

Pozkaria eta osakia nai dozue? Onetan dago, ba: Bere landeretan Jesukristo maitatu eta euren otsein gure burua egitean!, gorputzean lander, arimean lander, lander aberats-aberatsak eta lander zoruntsu-zoruntsuak izanik.

BEDERATZIGAREN EGONALDIA

IRUGAREN EZ JAUSTEN DA JESUS

Judiziaria eritxon atetik Kalbario tontoñeraño bereunen bat oinkada edo dagoz. Bide aren erdi inguruan Jerusalem'go alabakaz topoz topo egin ostean,

ia-ia tontoñera eldu zanean, Jesus'i belaunak bañiro dardaratu yakozan eta irugañenez luñera jausi zan.

Bañiro zutundu eben eta bañiro leporatu eutsoen gurutzea, eta godozteak zirikatuta bere neke-bidea amaitu eban.

* * *

Zegaitik Irakasle jaungoikozkoaren irugañengo jausketa au? Biritan emoniko irakaskintzea zegaitik dakañgu bañiro gogora? Gure kemena makaldu egingo dala eta bañiro zutundu bear ko gariala ez al dakigu, ba? Jakin bai dakigu, ez baña bear bestean; eta sañi askotan, zio batzuk yatoñkuzanean ezer be ez daki-gula esan leitike.

Oi! gentzatsu gagozanean gauza guztiak zuzenean epaituten doguz; igaro izan diran oñazeak dakusguz gure oroimenean, eta beren oldañari men-egitean zelako zentzunbakoak izan garian aituten dogu; bare unetan artzen doguz gure erabakirik sendoenak : «Gaurgero adoretzuak eta kementsuak izango gara, biotzean sartu yakun ildurea eta mardokeria jauñti egingo doguz... oñaze ordua datoñenean oñazeak eroan egingo doguz»... Ai! eta ordua eldu egiten da eta gure adore guztia keya lez ezereztuten da! Gure belaunak ez gaitue euren ganean euki gura, aldamenka egiten dogu, luñera jausten gara eta nega baten luñean etzunda gelditzen gara.

Gure jausketak eta aunduketak dakarzkuezan ariskurik andienak ez dagoz jausketa eta aunduketan bertan. Makaltasunok gizonari berez dagokioz! eta arazo onetzaz Irakasleak damozkun ikasbideak edeñto

adirazoten dauzku guganako daukan erukia. Ariskua ez dago digaron eta azpiratzen dan une bateko adoregetasunean, dirauan adoregetasunean baño, gure arimia osoro menperatzen dabelako eta, bein bere menpean jausi ezkerro, jagi ezin garialako.

Au onelan dala, eta naiz-ta lotsagañiena izan gizonentzat bere negar-malkoetan urasetuta adore eta kemen barik etzunda gelditzea, laster yatorko zitzaldia era biotan: «¿Bañero jaustekotan zetarako jagi?», diño berekiko; edo bere arimiaren nagitasuna estaldu barik onelan esango dau: «Bañero jagiteko indarrik ez daukat, bañero kemenduteko kemenik ez daukat».

Nagikeri au, koldarikeri au, ero eta zainik ez au, oñazearen aurrean gogapearen aunduketa iguingarri au, zoritxañez, ez da ludi onetan noizik noizera baño ikusten ez dan gauzea. Eta oraitiño be, orixe da arimearen eriotzea. Luñean jausita gelditzen dan arimeak zer egin legike, ba? Bere bañuan biribilduten da eta ez dauko ezertarako arnasarik. Ai! ez gaitezen osoro auldu, bizitzako sustrai guztiak igertuko litzakez gure biotzean-eta. Ekin dagigun, ekin dagigun askenengo uneraño. Jausten garianian bañero zutundu gaitezen, zutundu gaitezen beste beiñ, betiko zutundu gaitezen... Jesukristo egon zan bezela, eriotzatik oinkada bira ba-gengokez be, zutundu gaitezen.

* * *

Ekandu-onen bidean saritxu jausteak laster gaiztakeria maite izatera edo beintzat gaiztakeria damu andi barik egitera garoezala esan dot: lengoen gane-

ra yatorkun bigarango izakera bat bezela da : oren oyezko yaku! Bere burua beruntz doala eta jausi egiten dala damu barik ikustea gizonaren lendereri andia da!

Alan be, berago beste mala bat, beste jausketa sakonago bat dago. Eta auxe da : gaiztakeriatzaz ainstesteraño oitu ta gero, eta arengandik zelan urten ez dakianean, gaiztakeri oren zuzen-bidea norberagan lortu izatea... Ez bakarrik gogapea zataritu eta zatarituaz usteldu egiten dalako, bai-ta adimena griña txaren indarez okertu eta itsututen dalako be. Ez yako neiko gizonari oben egitea, aitzakitu, gitxitu, agarbitu, goraldtu eta bai-ta ekandu-onen egitekotzat artu be gura dau.

Gure biotzaren barenera ondo begiratu dagigun, eta antxe idoroko dogu gogape bigurituaren alegiñ ori adimena be biguritu eta okertu nairik. Gaiztotze bari au egiteko gizonari zirikatzen dautson ziyoa agirian dago. Gaiztokerietan dabilen gogoari yatorkozan zimikoak naiz-ta noizik noizera baño etori ez, oraitiño be geyegi dira... Gogapea dan zinaldari mutiria! Baña gogapearen zimiko oneik : «egiten dozun ori obena da; maite dozun ori txara da... txarkeriari emoten datsozu zure burua», nundik datoz gaiztakeria ikusi daben eta gogoari oyu dagion adimenagandik baño? Ai! adimenak aiñ argiro ez ba-lekuske!... Baitintasun betuge ori ez ba-leuko berak; erugea, iraingea, bidezkoa eta azkenez gabenduta ez dagon atsegin zilegi bat bezela irudituko ba-litzakio berari gaiztakeria; ez leuke orduan orelan oyu egingo, gogape-zimikoak amaitu egingo litzakez eta liluratuten gaituen griña txaren uariak eroan gagizela naroro itxi al izango genduke.

Gizon batek zegaitik bere adimena okeñtu gura daben agirian dago, ba. Baña... loñtuten al dau? Obendiari bere betiraunatzaz aztu erazoteko aña, ez dakit zelako zorabioa adimenean eta ez dakit zelako lo-soñoa bere gogapean loñtuteko aña bai beintzat. Galde egiozue ludiari gaiztakeri oitueneko oñetzaz edo griña txarai begikoen yaken añetzaz... Ori gaiztakeri ori aintzat artzekoa ez dala, gaiztakeria be ez dala eta oñetan gauza jazañgañirik idoroteko biotz estuegia euki bear dala erantzungo dautsue. Obendi nabañ baten aurrean bere okeñen loitasuna adirazteko alegindu zaitzeze..., begiak zabal-zabal ipiñi eta iri-bañe egingo dau : onezkero aztu yakon izkeraz, ulertuten ez daben izkeraz itz dagiozue.

Eta zeinbat oben dagiezan arelako gaiztetsiten euzan aña ikusi eziñik iluntasunera jo eta azkenean iluntasuna idoro izan daben gizonak! Gauza txara aulkeriz egitea giza nagusitasunaren lenengoko jausketea da. Gauza txara maite izatea da bigañoego jausketea, sakonagoa eta makuñagoa, arimearen zimikoak jauñtiaz igitu eta bañiro biziteko zutundu dagiken zirikia jauñtiten dabe-ta.

Egoera tamalgañi oñetara eldu gura ez ba-dogu, gure burua jagon dagigun, sañitan jausteak egoera oñetara ia nai ta nai ez garoez beti-ta, jausten garian bakotxean zutundu eta bizkoñtuaz gure kemena bizkoñtu eta sendotutea loñtuten ez ba-dogu beintzat. Zeinbat bider azpiratuak izan, ainbat bider zutundu eta jauñduteko kemena guk eukitea beañezkoa litzake... Ai! ori ez-eze gure jausketa bakotxak kemen zaliak da-roaguz beragaz.

* * *

Gizonari beti jausi eta jausi daragion argaltasun andi onek eta tamalez guztiok oaríkasi izan doguna, iñoren utz-egiteak erukirik andienaz azketsi erazo bear leuzku. Zori txara iñorengan dakusgunean, zelan oarpetu bear gintzakezan gure biotzetik aiñ eres igoten daben mukeitasun, ezespén eta alaka mingotsen aurka!... Onen garbiak al gara gu? Gu!

Utz-egiteak, gaiztakeria, obena goñoto izan bear doguz ori bai, baña gizonakanako euki bear dogun erukia dan andia! Aundutea eta jaustea dan gauza eresa ez al dogu guban oartuten? Guk laprast egiten dogun agudo, eta gure burua jausita ikusten dogun agudo! Eta jausten diranatzaz ez al gara erukituko?

Eta bañero zutunduten ba-dira, ez al gara euren jausteatzaz aiztuko? Oroimen gogaikañi bat betikoñ biurtu nai ba-genduke bezela beti beratzaz oroitzen eta besteai oroi erazoten egongo al gara? Miren Madalene'gaz ori egin al eban Jesus'ek? Eta zer izan zan Madalene garbaitu baño lenago?


Oi! Lagunurkoentzat biotz onekoak eta erukioñak izan gaitezen! Jesukristo zelakoa dan guretzako ikusi! Bai-ta salatu eta gaiztetsiten dabenentzat be, bai-ta oñazetu eta zigoñtu dabenentzat eta arpegira txistua bota dautsoenentzat eta gurutziltzatutera daroenentzat be.

AMARGAĒN EGONALDIA

JESUS' I BERE SOIÑEKOAK KENTZEN DAUTSOEZ

Eldu ziran noz-bait tontoċera. Kisto'ri bere sorbal-detatik gurutzea kendu eta bera gurutziltzatuteko azkenengo geċkunak atondu ebezan. Gizozteak, eċromatar ċudariak eutsiten eutsolarik, ilgayen eta urkarien inguruan biribil neurċe bat egin eban.

Aurenengo Amabirjiċnea ikusten dot, biotza oċnazez uratuta; bere aldamenean Miren Madalene eta eurakaz gizon bat, Juan ikasle maitea.



Geiko

Eta gurutzea zutunik ipinteko ċudari batzuek zuloa atxurtuten daben artean eta beste ba-

tzuek maċua eta untzeak geċtuten dabezan artean, euretariko bik Jesus'i bere soiċnekoak kentzen dautsoez... ganeko txabuxa... baċukoa, bere Semearentzat Maria'k bere eskuakaz iruri eta oyalduriko berbera. Epaituaren ondakin au da ċudarien oskiċa: Ganeko txabuxa laster zati bardiċnetan bananduko dabe, eta josigea norentzaz izan zotzak botako dabez.

Eta Kristo zeru-luren auren bilosik, zutunik agiri da. Mokoċkiro zabaldutako bere zaurietatik baċiro darion odola da bere bakaldun-jantziaren goċitasuna; burua zolotuten dautsoen arantz zoċotzak, bere bures-

tuna. Oña or Kistoa, Irakaslea, zeru-luñen Jabea! Bera da, bilostasunik eta bakartasunik andiengan. Zer gelditzen yako? Urea? Bere lanaren edo ukáren bidez bizi izan da, eta bere ikasleak janarituteko eukan apurá Judas'ek ostu dautso... Etxe bat? Denporia da bere burua etzuteko ari bat be ez eukala esan al izan ebalá... Aintza? Antxe bere ondoan dagozan eta bera-gaz batean gurutziltzatuak izango diran lapur bien erdian urkamendi baten ilteko dago... Omena? Iraiñakaz laidotu dabe, bera baño Bañabas aldiñagoa dala esanaz edozelango matxinaítzat, moskortiltzat, zortzat artu izan dabe... Bere ikasle eta jaraileak nun dagoz? Guztiak iges egin dabe, ostendu egin dira! Euren Irakaslea Jerusalem'en garaile sartutean lagundu eutsoenean etziran ostendu, ez... Baña gaur! Estaldu-teko oyal zati bat gelditzen yako... eta ori be kendu egin eutsoen gudariak, norentzat izan euren artean buruka egielarik. Zer gelditzen yakon, ba?

Ai! bai, bere biotzarentzat maitien, kutunen eta gozoen zan zerbait gelditzen yakon... Oi ene Jaungoikoa! gitxienez be altxor ori gorde izan dozulako eta nik gorde dagiala itxi daustazulako, onetsia zu. Bere Ama gelditzen yako, aizkide bi gelditzen yakoz: Madalene eta Juan. Arima oreikaz gelditzen da; ez dituz itxiko ez.

Bestelan esan egidazue: gudariak zegaitik itxi eutsen gurutzearen oiñetaraño joaten Jesus'ek bere azkenengo begirunea euren ganera jausi zedila nai izan ebalako baño?

Ardaoz eta miraz egiñiko edari bat, eta mingotsen mingotsaz beaztuna deitu zeikeana, ilgayai emoteko oiturea euken eromatarak. Edari onek ilgayaren sentzumenak amostu eta lo-soñoan ipinten ebazan, eta



olan amostu gura izan daben, eta azkenean gizonari baño abereari dagokion aberatasunean doloñtutea baño besterik ez daben lortu!

* * *

Gure Jaunak baña bere bilostasun oñetatik guk zer ikastea gura ete dau?

Orain esango dautsuet :

«Jesus'ek bere sorbalda odolduetan eroan izan ez daben naigabien bat, zitzaldiren bat, jausketaren bat, oñazeren bat dagola ludion esatea birao ikaragaña izango litzake», diño Ravignan Abeak.

Oi kistañ ori! zure zori txarñ oñenbestekoa ez dala-

ko, bear ba zuk Kisto'ren bilostasun eta muñiste ori ez dozu aituko : ez dozu aituko, Jaungoikoaren arduratasunak zauritu ba-zauz be, landeritasun eta bakar-tasun leize aiñ sakonean jauñti ez zauzalako...

Zu baña bakañik ez zagoz ludian! Soiñean zer ipi-ñirik ez daukenak eta aterik ate Jaungoikoaren jantzi ondakiñak eskatu beaña dauken txiroak dagoz. Lan nekegarian euren bekokietako izerdia ixuri ostean erdi bilosik dagozan euren semeak jantziteko bear ainbat lan-sari irabazten ez daben gurasoak dagoz... Aberatsen seme-alabentzat bezela, euren seme-alaba-txuentzat be lenengo Jaunartze eguna ureratzen dato-ñela ikusten daben amak, Jaunartze deunean euri bere izate guztia emoteko Jesukristok aberatsi bezin biotz maitaleaz dei dagitsela beartsuai entzuten daben amak dagoz, eta ama gixajook euren ume erukañiak Jaungoikoa artzeko garbi eta apain egon daitezentzat jantzi eradunikez daukelako nega eta zotin egiten dabe.

Eta au ez dakianik nor da? Zer? Gure uri andi-etan, bear ba zuen etxetik uréan, zer janik ez dauken gizonak, andrak eta umeak dagozala ez al dakizue?

Eta lander oréitzaz Jesus aitzu egingo dala uste al dozue? Euren oñazeak ez dauzala ikusten eta euri emoteko ikasbide bat eta pozkide bat ez dabela eukiko uste al dozue?

Oña or nortzuekaitik dagon Kalbario'an zutunik, bilosik, ezer be barik! Landerakaitik dago, bere anai egin dituan bere lander kutunakaitik... Ez azitu, ba, aberatsok : zuen artean ez dabela jayo nai izan euren artean baño.

Landerak, txikiak, ludiak ezetsi eta oinpetuak maite ez dituzanak, Jesukristo'ren maitasuna zer danik ezer be ez daki.

* * *

Jaungoikoaren arduratasunak noizik-beiñ, ogasunak guri kenduaz, gorputzeko landeritasun ori ipinten dauzku. Baña sariago gogoko landeritasuna deituko neuzkiona ipinten dauzku.

Landeritasun ori eroateko gertu al zagoz, ene arimia? Zure gurariak ezetsi eta inorenak egiteko gertu? zure gogapeari uko-egiteko eta gorengo norbaitenari men egiteko? zure biotzeko zaletasunak izteko eta zure eginbearak eta Jaungoikoaren aginduak betetako?

Areago... Jaungoikoak zure azkatasunaren opea eskatuko ba-leutsu gertu al zagoz?... zure oroimena-rena, adimenarena eskatuko ba-leutsu? Arakatu egizu ondo zure barua, gizona! : Jaungoikoak bere naimen izkutuan, zuk sentzuna galtzea eta giza-ikuia galduta gizona gelditzen dan izaera oretan zu gelditzea erabagiko ba-leuke, gertu zengokez?

Eta olan izanda be, zertzaz alakatu al izango zintzake? «Nik onerako emon neuntsuzan gurariak, zuk bariz txarerako erabili dozuz; eginbeara betetako emon neuntsun gogape bat, zuk bariz biurikerietan erabili dozu; maitasun amaigea nazan neronengana dakaeren bidea artu egian zure biotzak, maitatuteko almena emon neuntsun, zuk bariz gauza igeskor eta ustelak, lotsagari eta obendunak maite izan dozuz. Beraz, egoki dan eraz erabilten jakin ez dozuzan onura oreik kendu egiten dautsudaz; okertu dozun azkatasun ori eta bere argitasuna ezetsi dozun adimen ori kendu egiten dautsudaz» Jaungoikoak esango ba-leutsu, zer erantzun al izango zeunzkio?

Zer erantzungo zeunzkie itz orei? Auxe baño beste erantzunik ez zenduke aurkituko : Zuzena da, Jauna; kendu egidazuz!

Ez gaitezen alakatu, ba, kistañok; Jaungoikoak kentzen dauzkuzan eta negarez galtzen doguzan ogasunak, oindiño izten dauzkuzan goirengo emoitzen ondoan, guk txarño erabili izan doguzanañen, ezer ez dira-ta. Eskarñak emon dagioguzan eta atsekabeak jasantasunez eroan dagiguzan.

AMAIKAGAREN EGONALDIA

JAUNA GURUTZEAN ILTZATUTEN DABE

Goizparkileak Jesukristo'ren gurutziltzatze guztia edestuteko itz bat baño ez dauke: *Crucifixerunt eum*, diño Mateo Deunak. Markos deunak itz bardiñak darabiltz, eta bardiñak Lukas eta Juan deunak be: *Crucifixerunt eum*. «Gurutziltzatu egin eben». Eta oñaze onetan geyago gelditu barik, gurutziltzatzearen ondorengoak zeatz-meatz edestuten dabez.

Margolariak eta irudigileak belaunik belaun, Gurutzea luñean zetzala iltzatu ebela Eroslea eta iltzatu ta gero jaso eta aurretiaz egiñiko zulo baten zutunik ipiñi ebela egitzat artzen dabela dirudi. Abitz au ziñestunen begi aurrean ipiñirik, geyenetan euren ziñestetan sartu izan da. Baña oraitiño be, egia ez izatea bai leiteke. Erómatarñak ez eben era oréfan gurutziltzatuten.

Lenen gurutzea zutunik ipinten zan. Ilgaya bere oiñetaraño eroaten eben; besapetatik lokari bat ipinten eutsoen eta gurutze-adañen ganetik finkatuaz egoki zan lekuraño jasoten eben. Gurutzean gero zurubi bat



ipiñi, urkaria igon eta ilgayaren beso biak luzatuaz, bein bat eta bein bestea eguñari gogor-gogor lotuten eutsozan, eta azkenez, untze andiakaz bertan eskuak eta oiñak iltzatu.

Kristo nekausteko ardurea euken Eróma'ko gudariak oi ez zan eraz gurutziltzatu izan ba-lebe, Goizpar-kileak oartuko eben ziur. Orixe izan zan, ha, Jesus-egaz, Irakasleaz egin ebena. Zauri bat baño ez zan bere gorputza gurutzean gora jasoten dabe, lokañiak bere aragian sogunak dagitsoez eta egur' deunean bere esku oiñak estututen dautsoez, eta azkenez maluka, odol iturñiak soñerazi arteraño, bere aragia zulotu eta untze andiakaz gurutzean josten dabe. Eta au guzti au bere Amaren aurean!...

Eta judutañak au ikustean txaloak joten ebezan! Darion odol guzti ori, dardaraka dagozan aragi uratu oñeik eta negar' dagian Ama oñek, ori guzti ori alai-garñi eta euren goñotoarentzat asegarñi yake. Entzun zelan irainduten daben: «I Jaungoikoaren Txadona luñera bota ta iru egunean berégiten dokan ori, eure burua gaizkatu egik; Jaungoikoaren Semea ba-az, gurutzetik jetsi adi». Beste batzuk iraiñez onelan iñotsoen: «Beste batzuk gaizkatu dauz eta bere burua ezin dau gaizkatu!» Eta irñi zuri bakotxari bañe zantzozakaz erantzuten eutson giza-taldeak. Eróma'ko gudariak be bañe egien eta gizozteaz batera txistuka iñarñduen. Eta bai-ta Kristo'ren alboan gurutziltzatu ebezan lapur bietatik batek be, naiz-ta oñazetan egon, bere iraiñakaz zaurituten eban.

Jesus'eri burua bulañ ganera jausi yakon eta, bere begiak erdi zabalik, Maria'ri, Juan'eri eta Madalene'ri begiratzen eutsen.

Lugunabañen iraiñai erantzun eutsen azkenean, eta espanak zabalduaz zerurantz begiratu eban eta: «Aita, esan eban, azketsi egiezu, zer dagien ez dakie-ta».

* * *

Zegaitik ori odol guzti ori ixuri; zegaitik oñeik oñaze zoñotzok jasan; ori gorputz gaixo ori zigortua izan; ori bekoki ori arantzez zuloa; oñeik eskuok eta oñeik oñok untzez josiak?... Zegaitik jasan gura izan dau Jesus'ek ori guzti ori?

Ziñopai ikasbide au emon beara eukan eta gorputzeko oñaze guztiak berak berean oñikasi nai izan zituan; oñazeok eroateko aneika autetsiko zituan gero beren zeme zintzoen artetik-eta.

Ziñopak gugandik dagozan urun dagozalako, Koliseo eta Katakunben ganetik igaro diran ainbeste eundi igaro diralako, aitzu egin yaku zelako jazarpenak zekañtzan aldi aretan Jesukristo'ri zintzo jañaitzeak.

Gero kristau-aldi guztietan etoñi izan diran ziñopatzaz be aitzu egiten gara, eundi bakotxak bereak izan dituanaren, eta Irakasle Deunaren nekaustea eredu izan yakela be aitzu egiten yaku.

Eta jakozun onetan Jesus'ekin beste irakasle bat be bai dago. Ez al dauzku ezer esaten oñek Ama oñek, or zutunik, bere Semearen oñazeai kementsu, konortea galdu barik begira? Urkariak egin dautsoezan zauriakaz Jesus'en gorputz guztia uratuta dago; baña bere Semea, bere sabeletako semea dan ilgaiaren zigorkada bakotxak, zauri bakotxak, odol tanta bakotxak Maria'ren biotza uratu dagi! Maria'k berak be guri ikasbide au emotea beañezkoa zan! Gero beste ama batzuk euren semeak ziñopatzara eroaten eta arein oñazeak eta eriotza ikusi bearko ebezalako. Gizadiak gizaldi guztietan izango dituan atsekabe


guztien, samiñ guztien, oñaze guztien ikasbide eta eredu Jaungoikoaren oñazeak izatea bearezkoa da. Orain bariz dei au dagitsuet : «Etori eta ikusi ia zuen oñazeak bereakaz bardindu leitikezan ala ez!»

Eta alan eta guzti be, alakatu egiten zarie, koldartu egiten zarie!... Eta zuen zori txararen erua Jaungoikoari botaten dautsozuela dirudi! Zarien bestean oñazetuak izateko ia zuek zer egin izan dozuen itanduten dozue!

Zer egin dautsot nik Jaungoikoari?, diñozue. Eta Jesukristo'k? Zer egin eban berak jasan zituan oñazeak jasateko? Zer egin eutson Berak Jaungoikoari, bere Aitari?

«Samiñak eroan dauz, samiñak eroan bear izan dauz, diño Ebanjelioak, onelan zerura eltzeko», *Nonne haec oportuit pati Christum eta ita intrare in gloriam suam?* Eta ikusi zegaitik atsekabeak daroazuezan eta eroan bear dozuezan. Zori onera, zerura eltzeko. Ai, ene Jaungoikoa! Ludi onetako ondasunak galtzeak ainbeste negar eragin dagizkuen, zer dira? Itz batean, be onetako atsegiñak joaten yakuzanean gure biotza ainbeste samindu deiten, zer dauke?... Ori guzti ori zirtzila eta ustela ez al da? Atsegiñ oreik eta ondasun oreik asetu eta bete al dabe iñoiz osoro gure biotza?... Eta zeruko zoruna erosteko txinditxu bat bezela onelako gauzen bat eskatzen dauzkunian gure Jaun eta Jaungoikoak, zalantzan gelditzen gara, urikatzen asten gara, eta garestiegi erozten dogula dirudigu!... Ai! lur au zer dan eta zerua zer dan, emengo bizitz ain labur eta igeskor au zer dan eta ango bizitz amaibako eta betikoa zer dan ulertuko ba-genduke... bizitz onetan atsekabeak Kristo'ren maitasunaren eroatea bestean Beragaz gozartutea

dala aituko ba-genduke noz-edo-noz... oi, zelan gure alakak beingoan uxatuko litzakezan eta gure samin oñazeak onetsiko gendukezan!



Ikusi, ba, Jesus gurutzean josirik; bere nekaustea azkenetan dago! Laster elduko da eriotza eta amaituko dira bere oñaze guztiak.

Atzekaldeko bideari begirune batzuk jauříti dagioguzan. Oñazetan egoala zer egin izan dau Jesus'ek Bossuet'eri entzun : «Ona emen Idazti Deunaren itzakaz : *Tradebat autem judicanti se injuste* (1). Oker ebasten ebanen eskuetan izten eban bere burua», eta bere ebazleatzaz diñona bere irainle guztiatzaz be bai diñola aitu bear da : *Tradebat*, areik nai ebena egiteko emoten eutsen bere burua.

Mun egin gura dautsoe, eta bere espanak eskeintzen dauz; lotu egin gura dabe, eta bere eskuak eskeintzen dauz; belarondokoak emon gura dautsoez, eta ez dau bere arpegia alderatuten; zigoíttau egin gura dabe, eta bere sorbaldak eskeintzen dauz; Kaipas'en eta Pilatus'en aúrean salatuten dabe, eta ziñesterazo balleutsoe bezela, ixildu egiten da; Erodes'ek eta bere jaíaigo guztiak isekak egiten dautsoez eta zoroa bailitz egotziten dabe, eta berak bere ixiltasunaz guztia egitetsi dagi. Gudarien eta urkarien eskuetan ipinten dabe, eta berak bere burua oindiño geyago eskeintzen dautse. Len aiñ edera zan arpegi deun a eta zeruluak kordegetuta eta gelduta eukazana, gizozle zitalen txistu-euri txaritoak gora-bera, igige, agiri-agirian darakus; buruko uleak eta bizaía erausten dautsoez, eta ez dau itz bat be, alakarik bat be esaten; moztu dagiela izten daben bildots apal bat da. «Zatoze, zatoze, diño zaitaldeko gudariak, zatoze judutarén Éregea dala ames dagian zoro au ikustera; arantzezko burestun bat ipiñi bear yako!» Eta Berak artu egiten dau! Ondo sartzen ez dalako, makilaka sartu bear da baldokian. «Jo egizue, oía oí burua...»

(1) I Petr. II, 23.

Erodes'ek zoro jantzi zuria ipinten dautso : «Isekazko Éregeri bezela janzkoñdun zatitxu au ipiñi bear yako».—Ipiñi egidazue, emen dagoz nire sorbaldak.—Luzatu egizu eskua, Judutañen Érege oñek, eta érege-makilatatzat kañabera au artu egizu.—Oñ a oñ nire eskua, nai dozuena egizue. Oi! oraiñ benetan dala begiratu egizu gero; eriotzara epaitu zaitue, beraz iltzatu dagitzuguzan luzatu egizuz...—Emen dozuez; iltzatu egizuez!»

Salatuten dabenean ez darantzu Jesus'ek, joten dabenean murmuxiorik ez darabil, eta bere espanari ez dautse izten ez-ta negar-zotiñak eta oñazearen ayak dagien oñelako alaka-suñumuñu ito ori be, naiz-ta orixe izan makaltasun zapalduaren osabide bakañ goibela, eta indañez eragotzi ezin dabena biotzak erukituaz eragotzi gura dabena.

Gogorkeri oñetan egoala ez da alaka bat be entzuten, ez da bere abotsa entzuten, *non apperuit os suum* (1) eta bere burua ez eban bein be ukaldietatik kendu. Ai! luñeko añ batek be, igarrotean zapalduten ba-dogu, aldentzeko, alegiñak egiten dauz, eta Jesus zirkiñik be egin barik gelditzen da, eta ukaldietatik iges egiteko ez dau ezertxu be egiten! *Faciem meam non averti* (2).

Ene kistañok, ainbesteko samiñak al daroazuez?

(1) Isa. XLIII, 7.

(2) Isa. L, 6.

AMABIGAÑEN EGONALDIA

JESUS IL EGITEN DA


Jesus gurutzetik dindilizka egoan, bere odola tantaka jausten zan, eta bizitza apurka-apurka joakon. Etoran eriotza gozartuten eben judutarak. Amabirgiñea beti zutunik eta Jesus'eri begira-begira egoan. Juan, bera lez, zutunik, eta bera lez, atsekabeturik. Madalene, belaunbiko eta bere beso biakaz gurutzea besarkaturik, negar zotiñen artean bere Irakasle jaungoikozkoaren oiñ uratuetatik bere espanak zelan kendu be ez ekian.

Eguerdi uréan zerua ilundu egin zan eta luía ilunpe ikaragariz eta iloriz estaldu zan... Bere ordua eltzen zala nabaitu eban Jesus'ek. «Andria! —esan eban abots bigun eta samuñenaz— oía oí zure semea!». Eta Juan'engana, Ikasle maitearengana zuzendu ziran bere begiak. Eta Juan'engana joaz onelan jañaitu eban : «Oía oí zure Ama». Eta azkenez, gizaizaera jauskoñari beste beiñ men egin gura bai-leutso: «Nere Jaungoikoa —oju egin eban deadar urakoñaz— neure Jaungoikoa! zegaitik itzi nozu?». Baña bat-batean, bere jaungoikozko indaía ba-letorñio bezela, «Guztiak bete dira» esan eban, eta «Aita, nire arima au zuri damotzut» esan ostean, abots sendo bat jaurti eta ¡burua makuñturik, il egin zan!

Bat-batean Txadoneko kutzategiko estalki andia goitik bera erdibitu zan. Luía, zatituko ba-litz bezela, astiñaldi gogoñakaz dardaratu zan. Aráitzak alkar jo

eben, eta ilobiak edegi eta gorpu ilak urten eta odol-
lezko estalki andi bat eguzkiaren ganetik igaro zan.

«Ai! au benetan Jaungoikoaren Semea zan!» oju-
egin eban bilduréz beterik gudoztearen buru zan eun-
kariak. Eta bere bulara joten aldendu zan andik. Gu-
dariak atzean jarai utsoen, eta gero judutarak, ika-
ratuta...



Apurka-apurka giza-taldeak aldendu ziran, iski-
rionko iri-baírearen mozoírupean euren ikarea izkuta-
tzen ebelarik, eta... ilaren ondoan Maria, Juan eta
Madalene bakarrik gelditu ziran.

Oztea aldendu zanean, alderatuta egon izan ziran beste emakume bi ureratu ziran : Maria, Jakobo'ren ama eta Salome, Juan'ena, ziran. Guztiak batera, ixilik, atsekabeturik, euren irakaslea dindilizka eukan gurutzearen aurrean, aren eortzeteak egiten asi ziran.

* * *

Eriotza!... Jaungoikoak jasan eban!... guk guztiok jasan bear dogu... eta bear ba ez dago urun-urun; bear ba bere azia gure bularrean daroagu eta onezkerro bere ikura gure bekokian ipiñi izan dau. Il! il! eta neu be il egin bear! Itz onek gizonaren entzumena-
rentzat ots atsegekoñ eta gogora dauko... Eta nai ta nai ez, il egin bear : *Homo sicut faenum dies ejus, tanquam flos agri sic effloreat* (1). «Gizonaren egunak laire-oloa lez tximurtuten dira, landako lorea lez loretu eta igerluten dira».

Zegaitik bildurtzen gauz eriotzak?

Ludi onetan sentzumenen bizitza baño ez daroagu; euren bitartez yatorkez oldozmenak eta sortuten dira gure maitasunak eta esnatuten dira gure naimenak. Oregaitik gure bizitza, naiz-ta erubakoena izan, gauza ikugai eta oarkeñez beteta dago; orixe da ikusten dogun eta maite dogun gauza bakarra. Sentzumenen ludi oretatik eriotzak erausten gauz eta betiko alden-tzen gauz... zelan ez yako ankeñ irudituko, ba?

Baña gauza oarkeñ eta igeskoñok zegaitik ainbeste-an maite doguz? Egunen batean edo bestean itzi

(1) Ps. CII, 15.

egin bearco doguzala eta eurak barik urutiratu bearco gariala bizitzako aruntzago oretan ez al dakigu? Irazaki bakotxean eriotzaren ikura ipini dau Jaungoikoak... Danak euren auskortasuna oarerao eta gogoratu dagizkuela nai izan dau... Lorak gure begien auran orinduten dira. . igaliak jausi egiten dira, zuzatzak igertu... Eguna gabeko ilunpetan ilten da... liluratuten zauzan egazti orein abestia oyan baruan apurka-apurka ixilduez doa eta azkenean amaitu egiten da. Eta hai-ta eundiai goitik bera begiratzen dautsela dirudien aitx andi oreik be apurtu eta zalitu egiten dira eta apurka-apurka auts bihurturik aixeak daroaz... Geugan be zeinbat gauza ilten diran! Une onetantxe dagigun egitea, une onetantxe ilten da eta ez da gurea... Zeinbat bider igesi baño len oratu gura geunzkion bariro obeto eta egokiago egiteko!... Baña eziñ! joan zan! Aldia... bizitzaren irudi ikaragarri ori zer da une erenkada bat baño, bata etori eta beste joan etenge dabilen une erenkada bat baño? Gure oldozkunak joan egiten dira, gure maitasunak itzaldu, gure zaletasunak bata bestien atzean il... Gauza guztiak : ¡il egingo naz! deadar egiten dauzkue... Gure baruan eta kanpoan dan-dana ilten da. Ludian zer dago iraunkor eta amaigerik? Eta alan be, atsegin iraunkoren zaletasunak janda gagozananen, gure biotza itsu-itsuan il bearco diran gauza orei lotuten dautsegu... Geyago oindiño; geu be, il bear garianaren, itzi bearco dogun ludi onetan sustarak botateko alegintzen gara. Gure inguruko gauza guztiak ilezkoak dirala emon dagigun, nai ta nai ez, bata bestia-gandik aldenduteko ordua datořenean gure zaletasun geyegiagaitik zatituta geldituko gintzakezala jakitea ez al litzakegu neiko izan bear?...

Ara, ba, ez; egiñ-egiñean be eriotza uferatzen danean, gure tximurak sakondu eta gure uleak zuritzen diranean, gure gorputza makurtu eta aldamenka dagianean; orduaintxe, itoten dagon gizonak lez, iñozko indartsu eta zaletsuen oratuten dautsegu ludi onetako maitakeri utsalai.

Eriotza guretzat samingaria izatea noren eruz da, ba?

* * *

Izamenaren oldeak eriotzari bildurez begiratu darragigu. Ludion gu gure gorputza eta gure arimea gara: bata bestiandangandik aldentzen daben eriotza, gu gugandik aldentzeko uratu egiten gauzala dirudigu. Azkenez, gaixotasunak, samiñak, eriotz-aldiko laritasunak egiten daben onaze taldeagandik gure begiak bildur-dardaraka kentzen doguz. Gizonak lez, abereak be berezko ikara au oartu daroa, ata arimarik kemen-tsuenak, arimarik deunenak ezin daitekez beragandik azkatu.

Ez da aritzekoa. Eriotza oben-neke bat da!... Obenagaitik sartu zan ludian... obenaren ordaña da... Oretakotzat artu dagigun kistaok, eta erudunak garriala autoartuaz, zigortauten gauzan jaungoikoaren Zuzentzaren auran apaldu gaitezten.

Il-agiñean dagoanari abadeak Elizakoak damotsozanean eriotza olde onez artu dagian oldozmenak egin daroatsoz... Zer esan gura dau onek? Eriotza alderatu ezin dagikeanean, gure buru ganean daukagunean, ludian iñork beragandik azkatu ezin gauzanean, eriotza olde onez artu? Bai, kistaok, jasanta-

sunez artu, biotz apal eta maitalez eta goirengo oben-ordaintzat bezela.

Ai! oldozkun au andia eta goitikoa da, giza naimenak euki legiken olderik zindoenetarikoa: gure naimena gertuteko, gogamenok erabili dagiguzan gaurgero. Eriotza aurreztik onetsi eta geuk irabazia dala autoitu dagigun. Gure oben-ordaintzarako Irakasle deunak eriotza jasan eban bezela geuk be bardiñ... Bere bekokian ez egoan bildurik ez laritasunik. Ozta-ozta, zelanbait esateko, gure negar, alaka eta ustegetasunaren aitzakitzat emon eban arako alaka maitekoia: «Ene Jaungoiko ori, zegaitik itzi nozu?».

Oi! a bai Irakaslea! Oi! gure eriotz ordurako gertu gadizantzat axe beti begi aurrean eukitea bai dala bearezkoa! Batzuetan arima apal eta bakunenai eriotz orduan kemen andia damotse Jaungoikoak.

Ziñismenez beterik egoan andra batek (ez baña batzuen batzuk baño ez dauken arelako ziñismen argitsu eta sakonaz, ludiko txikitxu guztien ziñismen apalaz baño) orrelako andra batek, bere bizitzan atsekabe asko eroan ondoren, gaixotasun ilkoak jo eballa nabaitu eban, eta bere alabeari: «Nire ordua bai dator», esan eutson... «ez zaite nigandik aldendu!». Abadeari deitu, autoia egin, Elizakoak artu, eta oindiño bizi litzakeala esan eutsoenean: «Ai, ez —erantzun eban—; oñazerik neiko eroan dot; oraiñ zerura, atsedendutera». Oi ez lako gentzaz bere il-elizkizunak eta ilkutxea zelakoa egin eta ganerako beste gauza guztiak zelan atondu ber-berak agindu zituan. Gero itoten eban zeozer eztañira igoten eutsola oartu eban, eta ezer be ikaratu barik, negar-malko bat be ixuri barik: «Ene alabatxua —esan eban—, auxe da azken-arnasea... bañiro alkar ikusi arte»... Eta il egin zan.

AMAIRUGAÑEN EGONALDIA

JESUS'EN JEISTEA GURUTZEAREN BESOETATIK BERE AMAREN BESOETARA

Larunbata uréan zan. Gurutziltzatuen gorpuak egun deunean gurutzean gelditzea gabendu egian judutarén lagiak. Beraz, gurutziltzatuak ariñago il eta ainbat-len gurutzetik jetsi al izateko, arei anketako azuñak auste agindu egiala eskatu eutsoen Pilatus'i jaupariak. Agindua emon eban eta gudarriak burdiñakaz lapur biai ankak ausi eutsezan; baña beste oñen beste Jesus'i egiteko joan ziranean, ilda egoala ikusi eben eta auñera joan ziran. Euretariko bat, baña, ezpai egoan, eta zalantza izpirik be gelditu ez zediñ, aztamakilea bularétk sartu eta biotza batetik bestera zulotu eutson; jo ebanean, untzetatik dindilizka egoan gorputz guztia dardaratu



egin zan, eta egiñiko zauritik odola eta ura urten ziran.

Au guzti au Maria'ren begi aurrean jazo zan!

Gurutziltzatu guztien gorpuak ilobi berezi batera jauřtiteko oiturea euken, eta antxe gelditzen ziran arein aragia usteldu eta igertu arteragiño. Gorpua usteldu ta gero izten eutsen sendikoai arein azuřak batu eta etxekoen ilobira eroaten.

Arimatea'tař Jose, Sanedrinkidea, bere Irakasleari azkenengo iraiñ au egioenik ezin jasan izan eban. Aspalditik zan Jesus'en ikaslea, baña judutařai bilduř eutselako, ixilean eukan. Sanedrin'ean aren erugetasunaren alde urtetako bear ainbat kemenik ez eban euki; baña orduan bere asareak ganezka egin eta asareak ausardia emon eutson. Pilatus'en etxera arinaketan doa, iltzatuaren gorpua eskatuten dau, Pilatus'ek emon egiten dautso eta Jose Kalbario'ra bařiro dator.

Andra deunak baño gelditu ez ziranean Irakaslearen gorpu ondora joaten ausartu ziran ikasle batzuen laguntzaz, gorpua jeisteko gertu zan. Zurubi bat gurutzean ipiñi, untzeak atara eta geldiro geldiro jaungoikozko gorpua jetsi eben... Maria gurutzearen oiñean jařita egoan, eta bere beso maitekořak zabalduaz bere semearen gorpu odoldua, uratua, ubeldua eta otzitua bere altzoan artu eta bularean estutu eban...

* * *

Oi Ama! Aita Betikoak, an Belen'go askan, bere Semea dan orixe berori emon eutzun eta, zure laztan begirakoř eta maitekoř-maitekořai iribaře egielarik,

zure altzoan zoragariz eta ederitasunez beterik ipiñi eban arako egunatzaz oroitzen al zara?... Ikusi egizu zer egin izan daben gizonak beregaz eta zelan itzultzen dautzuen!

«Oi! zelako negar ibaiak ixuri ebazan Amabirjiñeak, zelako oñaze osiñean sartu zan, untzeak atarata, egur odolduaren besoetatik beren besoetara Semea eroan eutsoenean!».



O quot undis lacrymarum,
Quo dolore volvitur,
Luctuosa, de cruento
Dum revulsum stipite
Cernit ulnis incubantem
Virgo Mater Filium!

«A arpegi leun a, a bular samur eta sayets gozo-gozo a, aren esku zulotu eta oiñ uratu eta odoldu areik, beren negar-malko itunakaz urasetu dagiz».

Os suave, mite pectus
Et latus ducissimum,
Dexteramque vulneratam,
Et sinistram saucam,
Et rubras cruore plantas
Aegra tingit lacrymis.

«A bular eta gorputz deun-deun a, beiñ eta anei bider estu-estu besarkatuten dau, eta bere espanak aren zauri guztietan ipinten dauz eta musu samingari areikaz samurtuta, konortea osoro galtzen dau.»

Centiesque, milliesque
 Stringit arcibus nexibus
 Pectus illud, et lacertos,
 Illa figit vulnera :
 Sicque tota colliquescit
 In doloris osculis (1).

Elizamak abadeai Amabirjiñearen oñazeak jayalduten diran egunean abestuteko agintzen dautsen arendia euzkeraldu dot. Egiz, au ziñistuten ez daben amarik, beren semea ilten ikusi ba-dau beintzat, ez da bat be egongo.

Oi! ama batek beren semea ilten dakusanean zalantzan gelditzen da eta luzaroan zalantzan dirau. Ez! ilda ez dago!... Zelan beren semea il?... Urduri begiratzen dautso... eta aren espanak oindiño arnasea artzen dabela deritxo... Baña berak a gorpu a bere besoetan otzitzuez doala nabaituten dabenian, itxaropen guztia galtzen dabenian, zalantzarik gelditzen ez yakonian, berak be : «il da!... nire semea il da!» oju egin bear dabenian, arima aretan jazoten dana, biotz aretan ilten dana, nork edestu?

Eta ameak ezin dira orduan il... Ai! il al izango ba-litzakez... euren sabelako semeari ilobira lagundu al ba-legitse... Baña ez; oñazeak eroan bear, bizi egin bear... eta, gixajoak, bizitz-bidean auñera doaz, bear ba urte luzietan, euren biotzean iñoiz osatuko ez dan zauri urakoñ bat daroelarik. *Quia non sunt.*

Ama atsegetuok! Maria'ri begiratu egiozue... eta ikusi ia zuen samina berenagaz bardindu leitikenentz! Il yatzuezanakaitik negar dagizuenean, ba, negar egi-

(1) Amabirjiñaren Oñazeen lenengo aitsaldekoetako ereserkia.

tera beren ondora zoaze!... Zuek lez, atsekabetua izanda, zuek baño askoz geyago, eta zuen atsekabea be aituko dau. Zuen arimeari esango dautsozan itzak bai kemena bizkortu eta poztuko dautsuela! Zoaze, ba, Maria'gana: Zuek lez, bera be Ama da, eta zuek lez, beren Semea, beren Seme bakaña ilten ikusi dau...

* * *

Eta zuek guztiok, zarienok zariela, eta edozelango goibeltasunak iruntsi zaizela, Amabirjiñea'gana zoaze... Min zarie? Min andiak daroazuez? Ara ba, entzun Maria'ren bizitza zelakoa izan zan.

Bakuldunen belauneko zalarik, amasei urteragiño lander eta ezer be barik bizi izan zan. Orduan, Dabid'en jatorikoa zanañen, arotz beartsu bategaz ezkondu zan. Jaungoikoak Seme bat, bere Semea emon eutson... eta gabaz abereak batzeko egoan aberetegi baten ludira ekañi beaña izan eban... Bere Semea jayobaritxua zala, auñari burua ebagi ez egioen, Ekito'ra iges egin bear izan eban. Arotzaldi luzea igaro ostean, bañiro bere aberira dator eta Jose eta Jesus'egaz bere biziera neketsuari oratuten dautso. Jose il egiten da, eta Jesus'ek bere eñari itz egitera joan beaña daukolako itzi egiten dau, eta iru urtien buruan, ona emen bere Jesus ezetsita, iraiñez beteta, zapalduta, gaiztetsita, zigoñtauta, gurutziltzatuta, azkenez, ilda bere besoetan!... eta orain bakañik Juan'egaz; iñorenean amaitu bearko bere bizitza!

Eta ori etoñki guzti ori, Judas a, Pilatus a, judutañ areik, urkari areik, eta lokañiak eta zigoñak eta arantzak eta gurutzea eta unizeak eta txistuak eta odola

eta Seme il, ubel, otz a... iragañita egozan ezkerro, Belen'en asita beti bere begi aurrean itzalgañiro agerzen yakozan!...

Onen ondoan zer dira zuen samiñak?

Eta arek auxe iñoan : Egin bedi, Jauna, zuk naidozuna!

Begiratu egiozue, begiratu egiozue oraintxe, bere Seme kutuna beren besoetan daukon artean... alakarrik bat be entzuten al dautsozue? «Nire Semea zegaitik kendu daustazu» galde al dagio Jaungoikoari? Eriotzeari deadarka deituten al dautso? Beren bizi-ereatzaz alakatuten al da?... Kalbario'an daukon ixiltasun andiari adiz zagoze... Ezer be ez, dariozan negar-malko atsegeak eta eutsi nai dauzan zotiñ itoak baño ez... Bere samiñak andiak bai andiak diralakot! Bere biotza erdibituta, oñazez zatituta dago: Oi zuok, ameak zarienok! zuen semeak ilten yatsuezanean atsekabetuen zaituen oñaze guztiak atsekabetuten dabe bera be; baño arek ez dau kemenik galtzen, bere samiñai eta samiñ-oyu urakoñai eutsiñ baño. Etsita dago, jasantasun goirengoaz, eta beren espan dardaratuetatik eta oñaze itxaso baten itota dagon bere arimatik ez da zerurantz urtetan oyu au baño, bere bizi-tzako ikuña zan oyu au : «Ona emen Jaunaren mirabea; beti bedi nigan beren naimena.»

Zeinbat bider ez ete doguz gure biotzeko maiteak ilten ikusi, zeinbat bider oindiño ez ete doguz beste batzuk ilten ikusi beariko Jaungoikoak guri il gaitzezela agindu aurretik? Ama il baten oge ondoan, aizkide il baten oge ondoan, seme il baten oge ondoan gaba igaro ez dabenak... begi kutun areik azkenengo negar-malkoa erioela, espain areik dardaraka, il-zoriko lañitasunaz bular a putzitututen eta gero igige gelditzen

ikusi ez dabenak... bekoki otzitu aretan bere espanak ipiñi ez dauzanak... samiña zer dan ez daki!

Eta alan eta guzti be, Maria etsita egoan. Indar ori berari nondik etorkion, ba?

Ona emen :

Eriotza une bateko aldentzea baño ez dala eta zeruan bañiro bere Semea aurkituko ebala ekian.

Baña ori guk be ez al dakigu? Jaunaren besoetan il ziran gure biotzeko maiteak, gure ameak, gure semeak, gure aizkideak geuk be zeruan bañiro aurkituko doguzala ez al dakigu? Bai, bañiro aurkituko doguz, ezagutuko doguz, eta jaungoikoaren aurrean une batean apurtuta egozan maitasun-lokañiak bañiro lotuaz, an goyan emen beyan bezela eta emen baño geyago eta betiko alkar maiteko dogu.

Beraz, ba, gure maitien ilobi aurrean gure samiña itoaz eta Jaungoikoari gure biotzak eskeñiaz, ikasi dagigun Maria'gandik arako a esaten : «Jauna! zuk nai dozuna egin bedi!».

AMALAUĞAREN EGONALDIA

JAUNAREN ILOBIRATZEA

Ikasleak Jesus'en gorpua Maria'ren eskuetatik artzea lortu eta itzal maitekozez Kalbario'ko magaleraño eroan eben. Amabirjiñeak, Madalene'k eta beste emakume batzuk aokiari jañai eutsoen.

Gabeko kerizpeak lur ganera jausten ziran bitartean, ixilean joyezan.

Gorpu deun-deuna arlaba andi baten ganean luze-luze ipiñi eben eta esku leun eta begirakoñak odol guztia garbitu eutsoen; gero Jose'k eun azlaga abaña erosi ebazan eta zumintzaz nastuta egiñiko lobel eta luñiñaz urasetu eben. Gorputz guztia oyal baten batu eben, eta judutañen oitureari jañaituz, oyal gurizko lotaluakaz lotu eben.




Belu zalako osoro egin barik gelditu zan, eta larunbata eguna igesi zanean Madalene ilarekiko egin-kizuna amaituteko asmoz ilobira itoka datoñela dakusgu. Beraz zeregin erukoñ eta goibel aretan be antxe egoan ziur-ziur.

Arimatea'tañ Jose'k bere sendiarentzat egiteko agindu eban ilobia andik uréan, ari bizian egoan. Antxe ipiñi eben Jesus'en gorpua; Maria'k azkenengo musua emon eutson, an igige zetzanari luzaroan begira gelditu zan... gero, sarbidea izteko egoan ari andia urago ekañi, gora jaso, jausten itxi eta... ilobia itxita gelditu zan. Guztia amaituta egoan!

Oñaitiño be, ez Maria deun-deuna ez emakume deun taldea euren biotzeko maitea zetzan leku aretatik ezin aldendu izan zirala dirudi; Ebangelioak beintzat «nun ipinten eta nun izten eben gogoratuaz ilobi on-

doan jezañi ziralala» oar dagi. Gaba, baña, geroago ta ilunagoa zan, eta alde egin bear izan eben... Amabirjiñea bakañik, bere bakañtasun goibel-goibelean ba-



kar-bakañik, eta Madalene atsegeturik, Jerusalem' erantz abiatu ziran... Oinkada bakotxean Jesus'en loñatz odolduak ezagutzen ebezan!

* * *

Gure maitiengandik eriotzak aldentzen gauzanean, zaurien sakontasun eta min guztia ez dogula lenengotan nabaituten dirudi. Atsekabeak kordegetuta bezela izten gauz, eta gure zori txarã norañokoa dan ez dogu susmatzen. Alditxu bat igaro bear gure begiak etorñi bañi onen lazturez oitu dadizantzat, gure biotzak bere bañen-bañenean otzaren gogoñtasuna eta gauza guztietan didoron utsune neuribakoen sakontasuna nabaitu dagiantzat. Ete ordu au etorñi egiten da, egia gordin-gordiñik agertzen da...

Etxetik ilkutxa ataraten dabenean, ilobira jetsita-koan lokañiak kañazk-dagienean, lur burtziñadak jaus-

tean egin daroan ori zarata gor, utsal, berezi ori dagianean, orduaintxe, zoritxaŕeko oñaztaŕgi bat lez, irudimenetik zear digaro bideztu ezin dan zoritxaŕak damon atsekabea, esan danez, samiñik samingaŕiena. Nik neuk ez dot ezer samingaŕiagorik ezagutzen. Eriotzagandik baño ezin letoŕke... Baña gure bizitza gozaltuten daben onura guztiak galdu erazoten dauz.

Aizkide batek izten gauzanean, alditxu batean ez-pai, zalantzan gelditzen gara, beiñ itxaron bein bildur, oraiñ bildur gero itxaron; egiak baña noz-bait gure ordurarteko begi itsuak aŕgitu dagiz, maite genduzanaren etoikeria egiztuteko aŕgibide garbi-garbiak agertzen yakuz... Amaitu zan! betiko amaitu zan! Diru laŕitasun aldi batean gure ondasunak ondatu egiten dira, ondamendiaren ostean landeŕeria, aŕnean bizi bear izatea datoŕela bai dakigu, baña oindiño bere zigoraŕak ez gauz zauritu, eta itxaropen izpitxu batek aŕgituten gauz. Egunen baten uŕitasuna, gosea jagiien da gure aŕnean... Ai ene! ona emen bideztu ezin dan zoritxaŕaren ordua... eta auxe bai dala ikaragaŕia!... Eta beste gauza guztietan be bardiñ! Gizonari uŕiñeko itxaropen ditzirarik gelditzen yakon artean, biotzik ba-dauko beintzat, bizkoŕtu leitike; baña itxaropen guztia galtzen danean, gizadian osakirik ez dagonean, dana amaituten danean... Maria lez, gau-erdi ixilean bakaŕ-bakaŕik gagozanean!...

Ai! biotz atsekabetu gixajook, zegaitik oŕelan atzipetuten zarie? Ez da ezer betiko amaituten, ez da ezer betiko galtzen, noz-bait osatu ezin dan gauzarik ez dago, gauza guztiak zeruan dirautelako, antxe bañiro idoroten diralako eta antxe osotuten diralako. Egiz, gure bizitzaren mugaŕitzat jayotzea eta eriotzea artu ba-dagikeguz, orduan bai, gauza asko galtzen dira,

gauza asko joaten dira bañero ez etorteko, gauza asko betiko amaituten dira. Baña muga bioen bitarteko une ori ez da gure bizitzako zati bat baño, zati txiki bat, zati txikerena... An goyan betiraun neuribakotik zear iraun eta luzatu bear dala aitzu al yatzue?

Zegaitik ez dogu ziñismenik eukiko? Gure bizitza liburu bat bezela da; guk emen beyan ori batzuk itzultzen dautsoguz; laster dator eriotza berena itzultzera... baña eriotzak itzuli daben orian ez da liburua amaituten. Ez da esate bat be, itz bat be erdibituten, eta eten egin barik, geldi une barik, aurenengo ingozkia itzuliaz batera urengoia dator eta betiraunean zabalitzen da. Oi! oldozkun au guk ondo ulertutea bai gura neunkela!

Beti biziko gara; ildako nire maite guztiak bizi dira; noz-bait be onetako bizitza amaitu egin yaken, bai, guri amaituko yakun bezelaxe, baña bat-batean bizitza bañi bat betiraunean biziteko. Gizonaren bizitzan ez dago aintzirarik eta etendurarik.

* * *

Ziñismen bizi ori ba-geunke, gure oldozkun, asmo eta erabaki guztiak, gure lan eta lor guztiak, itz batean, gure maitasun guztiak ez gendukez ludi onetan, egotoki iraunkorik ez daukagun ludi onetan bakañik ipiñiko. Itxaso zabaletik zear Ludi Bañiarantz doazen bidaztiak dagien antzerako zerbait egingo genduke... Itxas-ontzian bertan euren bizitokia egiteko gogoa al dauke?... Euren asmo eta gurariak itxas-ontzi aretan al daukez? Zorakeria ez al da ori?... Laster elduko diran itxas-ertzak daukez buruan, eta itxaso oste-

ko luñalde aretan egingo dabena bizitza atonduteko gauza guztiak gertu eta zuzentzen al dabez? Geuk be beste orñen beste ez al genduke egin bearko?... Oraingo bizitz au bide bat baño besterik bai da, ba? Oit bere aberñirantz doanarentzat bideko neke eta gogaiak ezer ez dira...

Maite doguzanengana urññetik goazanean eta digaron egun bakotxak, digaron oldar bakotxak, aldia eta bitartea laburtu eta geroago ta aren urago garoenezanean, samin andiak atsekabetuten al gauz?

Oldozkun onek bai leunduko leuzkiguzala gure nekeak! Eta beste onura bat be bai lekañkegu: geroko bizitz betikoñari begiratzekeo begiak edegiko leuzkuz, eta beraz, gure zeruratzea eta zorun amaigea lortutea sarñago erabiliko gendukez gogoan. Eriotzak leku ezezagun aretan sartuko gauzala ba-diñozku ziñis-menak be, an emongo dogun lenengoko oinkadeak Irakasle jainkoañengana eroango gauzala be bai diñozku... Eta esku utsik, egikun eta ekandu on barik, zelan aurkeztuko natzako? Nire gogoa orbanduta eta loituta ba-dago, zelan ausartuko naz nire begiakaz berenai begiratzen?... Zerua lortuteko ezer egin ez dodan ezkerro, luñerako aiñ arin eskuetatik igesi yatazan ludi onetako gauzetarako baño lan egin ez dodan ezkerro, zelan egongo naz bere aurñean?

Baña ona maite ba-dot, zuzenean ibilteko alegindu izan ba-naz, gaiztakeriari, gurari txañai jaramonik egin ez ba-dautse nire biotzak... batez be, gurutze deunaren bitxabaletik Kisto'ri jañai al izan ba-dautsot... a bai ordu deun aretan poztuko nabena atsegiña!... Atzeñetik aberñiratuaz, orduaintxe nire oñazeak amaitu eta nire alaitasunak asiko dira!

Antxe dagoz neure begira nire aurñetik joan diran-

ak, il diran nire biotzeko maiteak! Antxe egongo naz neu be ludian itziko dodazan bizien begira, gentza iragarri eutsen naimen oneko arima guztiak Jaungoikoak batuko dauzan eguna eldu arte.

Oraingo bizitza dan laburá... bestearen ondoan ezer be ez da... Emen ordu batzuetarako onura batzuk galtzeak zer dauko, ba, an askoz obeak eta bertikoak idoroko ba-doguz?

Oi kistaok! negar dagitsezuen ildako orein aurrean, itxaropen deun oneik sakonkiro sartu egizuez zuen biotzetan. Areintzat eta zuentzat atsegingarriak dira itxaropenok. Emen beyan min andiak izan ba-dabez, bañiro esatea azketsi begit, zuek samin andiak ba-darozuez, uste osoa euki bear dalako. Samiña da Jaungoikoak autaturikoen ikuña. Oñazeak gure biotzaren odolean garbituten gauzan ezkerro, obenen ordaintzarako aldiñ andikoa da, eta gure arimak janzkorðun onegaz apaindurik atsegingarri yakoz Kristo'ri... eurretan berak Kalbario'ra eroan ebazan ezaugarriak dazaguz-eta.

* * *

Bariku aratsaldean eortzita gelditu zan Jesus. Maria Juan'en etxera batu zan : axe izan zan aurrerantzian bere bizitokia. Alan be, oñazearen oñazez uraturiko bere biotzean laster berbiztuko zala bere Seme kutuna biziño eta zalantza barik ziñistuten eban. Madalene'k, goi-argi gitxiago eukalako, itxaropenik ez eukala zirudian : onetara begiratu ezkerro, onen oñazea gize-tiañagoa, gure anuentzat egokiagoa deritxogu, eta oregaitik berari daragiogun. Larunbata negar baten

igaro eban: Jesus'en gorpua osoro gantzututeko asmoz luñiñ eta miñitza edarñak erosi izan ebazan barikuan. *Et revertentes paraverunt aromata et unguenta, eta sabbato quidem siluerunt secundum mandatum* (1). Atsedeen-egunean maitasun-egikun ori egitea, naiz-ta dan deuna izan, gabendu egitsen legeak. A bai areintzat egunaren luzea!

Baña urēngo egun - uratzeko argi izpi motelak gabaren iluntasunean dizdiratu ordukoxe, ordu aretako bakañtasun eta ixiltasunean, beste Maria'kin lagun abiatu zan, eta arin-arinka ilobi-deunarantz zuzendu ziran. Izten eban arlabea norbaitek kendu izan eban... Ulertu ezin eben alatz onek ikaraz leituta itzi ebazan, eta uste osoa galdurik an joan zan Madalene Apostoluakana oyuka: «Jauna ostu dauzkue eta non ipiñi daben ez dakit». Itzok geroago etori ziran beste andra batzuk egiztatu ebezan. Baña Bialduak burutik egindako irudimen ameskoñen amesak baño ez zirala gauza guztiok uste izan eben. Madalene ez zan arei ziñesterezoten gēlditu; ilobira biurtu zan eta an alboetako baratzetan, ausiabartzetan, ostaietan, aitz artean, leku guztietan, eta bein eta azkotan igaro izan zan lekuetatik bañiro igaroaz, Irakaslearen gorpuaaren bila ebilan; aingeruak onelan iñotsoen: «Andrea, zegaitik negar dagizu?» Eta berak auxe erauntzuten eutsen: «Jauna kendu daustielako eta nun ipiñi daben ez dakialako», eta zotinka asten zan negar-malko beroak eriozala.

Bañiro be bila ebilela, bat-batean, gizon bat agertu yakon eta: «Andrea —itandu eutson— zegaitik negar dagizu? noren bila zabiltz?» Arek, Arimatea'tar Jose'

(1) Luc. XXIII, 56.

ren lorezaya aurrean eukalakoan : «Jauna—esan eutson— zuk kendu ba-dozu, non ipiñi dozun esan egidazu eta neuk daramaket».



«Maria!» esan eutson Jesus'ek.

Abots ezagunaz eta jaungoikozko lautasun eta maitasunaz oguziriko izen au entzutean, Maria Madalene'ri biotza bulañean biratu egin yakon... Burua jaso eban eta bere begiak Jesus'enakaz topo topoz egin eben : «Ene Irakaslea!» deadar egin eta aren oiñetara belaunbiko jausi zan. Une aretan Madalene garbaidun eta atsekabetuaren biotza, obendi erukioñaren biotza poztu eben atsegin esaneziñak nok adirazo al izango?

Bere Irakaslea, bere Irakasle jaungoikoaña, bere Irakasle maitea, antxe, bere aurrean egoan... eta bizi-bizirik!... Itzuli izan eutsoen, ba... bizitza bañiro emon eutsoen... Bere begiakaz ikusten eban, bere belarñiakaz entzuten eutson... antxe egoan iribañeka, gurutzearen oiñetaraño zintzo jañai eutson obendia beiñola artu eban iribañe aregaz, eriotzearen otzak leitu arteraño aren espanetan iñoiz itzaldtu ez zan iribañe aregaz.

* * *

Madalene'ren biotza eta gure biotz gaixoak bardiñak dira.

Galduriko gure ondasunen bila, itzalduriko gure atsegiñen bila, ildako gure maitien bila, baratz eta legarizetatik zear zotinka eta negarez ariñeketan ibiltzen gara... Ludiko izaki guztiakana joan eta oyu au dagitsegu: «Nire zoruna ostu dauste... zuk ostendu ba-daustazu, esan egidazu eta neuk bañero artuko dot». Gure bizitza guztian nekez dañayogun eta alde guztietan alperik bilatzen dogun zoruna ia nunbaiten idoroten dogun, gauza guztiai galdetzen dautsegu, gauza guztiak txestatuten doguz, gauza guztiai ikutzen dautsegu, bai, eta ziur-ziur egoteko euren bañereraño sartu nai gintzakez... Eta ludiko gauza guztiak azkenean diñoskuena auxe: *Non est hic*. Emen ez dago! Gure bizitza guztian ori itz ori baño ez dogu entzungo: *Non est hic*. Emen ez dago!

Illobian Maria'k idoro eban il-oyala, bere biotzeko kutunari ikutu eutson oyala bezelakoak dira emen bean gozatuten gauzen poz igeskoñak, alaitasun amaikoñak. Bere eskuetan artu eta azterkatu ebanean, aren gorputzaren urin apur bat eukela oartu eban; an ez egoan baña Jesus'en gorpua... Ez dakit zelako kutsu apur bat eta keztuten dan urina baño ez dauken gauza utsal eta igeskoñetan ez dago zoruna. Eta alan be, euren bila negarez ibili ta ibili gabiltz.

Izentaturiko ordua elduko da, baña!... Eta Madalene'k bezela gure aurean eukiko dogu Jesus... Areri bere izenaz deitu eutsonez, guri be geure izenaz deituko dausku, eta bat-batean maitasun eta kordege-

itzearen dardarakaz gure begiak zabaldu egingo dira... gure gogoak argitasunez beteko... eta orduan zoruna, gure zoruna, gure egizko eta bakar eta betiko zoruna Bera dala ikusiko dogu! «Ene Irakaslea!» deadar egingo dogu arek lez, eta a lez bere oiñetan auzpeztuko gara.

Ori ordu ori, zeruko ordua izango da!

Zerua! oía orí gure oiñazeen azkenengo itza... Gure arimeak gosez eta egañiz gura daben pozkidea ez dogu emen luñean eta luñeko gauzetan iñun idoroko!... Oraintxu niñoanez, gure samin guztiak, gure naigabe andiak osatu ezin diranen ikuña dauke.

Beraz, gozatuteko zer egiñ? Erakel'en alakia egizkoa da beti! Orain ez dira bizi!... Zuek poztu gura nozuenok itzuli al dagistazuez? Ez; galduriko zoruna ezin dagist ez luñak ez gizonen itzuli! Aren orde bez beste batzuk ipinten dabez, egia da, baña zorunok be, lengoak lez, auskoñak eta amaikoñak dira. Bañero galduko doguz, bañero ordekoak artuko doguz, baña beste beñ be galtzeko, eta etenbako iñarñun onetan atsedena eta gentza loñtu barik alpeñik andeatuko da gure biotz gaixoa.

Oi! arima atsekabetu batek bere uste osoa be onetako gauzetan ipinten dabenian bai erukituten nabela! Begiak zerura jasoko ba-leukez!

Luña, Bossuet'ek diñonez, zori txar lekua dan bezela, zorun tokia zerua da. Zerua Jaungoikoa da, gure gogoak gozartua, dastatua; Jaungoikoa, au da, edertasan neurige eta betikoa, ondasun neurige eta betikoa, maitasan neurige eta betikoa!... «Jaungoikoa ikustean, —diño urtiztilari ospetsu batek, Lessio'k— Jaungoikoa, beso biakaz besarkatuko ba-genduke bezela, gure biotzean estutuko dogu, poztu gegikezan

ondasun goirena dan Jaungoikoa eukiko dogu. Bere gozotasun neurigea eta Beragandik, iturburu betikoñ-agandik bezela, sortuten dan atsegin urolde guztia gozartuteko eskubidea daukagu» (1). Gauza guztien egilea onelan gozartu ba-dagikegu, gauza guztiak eurenez damokeguezan atsegin guztiak, eta era obean, gozartuko doguzala agirian ez al dago?... Irazakiak gure arimean atsegin tantatxuak baño ixuri ezañen, zoratu eta kordegetu egiten gaitue; neuribako edontzi onen artean eta atsegin tantatxu oñein artean dagon ezbardintasuna bañiz; izamen osoaren eta ezerezaren artean dagona baño andiagoa dala egia ez al da?

Eta neu, oraiñ ainbeste atsekabetan nabilena, neu izango naz ainbeste atsegiñetan ibiliko nazana! Ai! egoera ameskoñ, luñintsu eta soñgoñean ezereztuko ba-litz nire izaera osoa, zeruak ez leuskit ardurarik emongo! Nire arimearen autsak, nire gorpu ilaren autsak bezela, ardura gitxi emongo leuskit! Baña neu, neure gizakia da betiko zorunduna izateko deitua; oraiñ minbera eta odola dariola dagon nire biotz au, auxe da alaitasun deunez moskoñtuta dardaratuko dana... negañ-malkoz beterik dagozan nire begiok, eurok dira Jaunaren pozoñak ikusiko dabezanak...; emen beyan beaztun eta gañaztasuna baño gozartu ez daberen nire espanok, eurok dira zeruko ezti azetuko diranak...; ludi onetako oñaze ikaragañi eta ustegekoñetan biyuñtu diran nire besook, eurok dira zorun betikoña besañkatuko dabentak... Bai, neu, neu izango naz oñen zoruntsua!

(1) Lessio. *De Summo Bono*, lib. II, cap. IV.



* * *

Ai! noiz elduko ete da, ba, berbizkunde egun ori? Emen atsekabeturik bizi garian orok an batuta noiz alkar ikusiko ete dogu? Noiz agertuko ete yaku Jauna Madalene'ri bezela? Noiz ez dakigu, baña bizitza dan jabuía dan ezkerro, beranduenean be, laster izango dala bai! Bizitza erdiraño eltzen dan ariñ; erditik azkeneraño bañiz oinkada bat baño ez dagoala dirudi! Beraz, bizkoñtu zaiteze zuok, atsekabetuok! zerua dagon urbil eta zerua dan edeía!

Jauna onetsi egizue zuok, atsekabetuok!... Oraingoa eroatea lan gogora da... bai, baña ikasbide eta Irakasletzat Gurutziltzatua ez al daukazue? Oi, Jaungoikoa onetsi egizue zuok atsekabetuok!... Oraingoa jasatea lan zaila da... bai, baña oraingoa ez da ezer, gerokoa da dana, eta gerokoa zoruna da! Jauna onetsi egizue atsekabetu guztiok... Oraingoa igarotea latza da... bai, baña... ara, igaro da... Jesukristo'k dei dagitsue...

«Maria!» esan eutson Madalene'ri...

Entzun, zuen izena da bere espanak oguziko dabena...

Oi! Zatoz, Jauna, zatoz!... *Veni, Domine, veni.*

A. M. D. G.

